



Daniel Cassany:

“Gizarte demokratiko batean herritarren esku-bideak eta betebeharrak ziurtatzeko modu bakarra hizkuntza argia eta ulerterraza erabiltzea da”

Aspaldi gabe, Cassany izena aipatu, eta inor gutxik zekien Kataluniako hizkuntzalari bati buruz ari ginela. Azkenaldi honetan, berriz, ahotik ahora ibili dira bai Daniel Cassany bai bere argitalpenak, eta bereziki, horietako bat: *La cocina de la escritura*. Orain dela gutxi Euskal Herrian izan dugula-eta, aukera horretaz baliatu gara Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasle hau sakonago ezagutzeko. Bere lana idazketa-tekniketan trebatzea denez, elkarrizketan gomendio batzuk eman dizkigu idazki hobekak egiten laguntzeko. Bere ustez, horretarako ezinbestekoa da aurrean daukagun paper zuriari beldurrik ez izatea. Hutsak egitea oso normala da, idazlerik onenak ere behin eta berriz huts egiten baitu, azkenerako huts horiek zuzentzen baditu ere. Adi, beraz, Cassanyren hitzei.

10. or.



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

6

Aingeru Epaltzarekin hizketan Nafarroa, euskara, hizkuntzaren kalitatea, diplomaziaren beharra... eta beste

9

Hasier Etxeberria Bat eta bat ez dirazaten beti bi

22

Toni Puig Administrazioaren zerbitzuak, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko

Justiziaren oinarrizko gida

Justiziaren esparrua oraindik ere zerbait misteriotsua eta ezezaguna da hainbat eta hainbat herritarrentzat: nola funtzionatzen duen, zein den bere antolaketa eta printzipio nagusiak, eta, batez ere, nolako hizkera erabiltzen duen. Horren ondorioz, esan daiteke halako amildegi bat zabaldu dela Justizia Administrazioaren eta herritarren artean; eta, honetara dator, bada, *Justiziaren oinarrizko gida* hau; alegia, ertz batetik bestera zubi bat eraikitzea, herritarrak auzirik ez dagoenean ere epaitegietara hurbil daitezkeen eta Justiziaren nondik-norakoak, bizimodu demokratikoaren bermea diren aldetik, gertuagotik ezagutu ditzaten.

13. or.

Eztabaida: zein da alderdi politikoaren programa, euskarak administrazioan izan behar duen tokiari dagokionez?

Gain-gainean dauzkagu hauteskundeak Euskal Autonomi Erkidegoan; garai aproposa da, beraz, euskal alderdi politikoek euskarari buruz zer-nolako programa duten jakiteko. Baina geurea administrazioa denez, horretara mugatu dugu gure jakinmina; hain zuzen ere, euskarak administrazioan izan behar duen etorkizuna ezagutzera. Erantzunak... era guztietakoak. Batzuentzat, egokiak dira euskara administrazioan zabaltzeko orain arte hartu izan diren neurriak, eta bide beretik jotzea proposatzen dute. Beste batzuek urrutiegi heldu garela pentsatzen dute; eta, azkenik, bada aurrerapauso sendoagoak eman behar ditugula esaten duenik. Hementxe dauzkazue iritzirik guztiak, eta garbi dago horietako batzuk errealitate bihurtu daitezkeela urriko hauteskundearen ondoren.

20. or.

Erakunde Autonomiaduna



...EZ, EZ... ORAINDIK
EZIN IZAN DUGU ZURE
PREMIAZKO GIZARTE
LAGUNTZARAKO ESKAERA
BIDERATU... EZ...
IZAN ERE, LAN HANDIA
DUGU... BAI... DEITU
HILABETE BARRU EDO...



ENRANCO



Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Joseba Lozano

Diseinu Grafikoa: Gabinorte

Zenbaki honetako lankideak:
Luis Elizondo, Hasier Etxeberria, Jakes Goikoetxea, Aitor Gorostiza, Enrike Gorrotxategi, Bittor Hidalgo, Xabier Iriondo, IZO, Patxi Larrion, Eugenio Lasarte, Joseba Lozano, Luma, Toni Puig, Arantxa Setien, Aitor Zuberogoitia, Entzi Zubiri, Ilari Zubiri

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigorrerz bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

PERTSONAIA

Montxo Armendariz:

"Erraza dirudi, baina gauza xumeak lortzea da zailena"



Lanpetuta dabil Montxo Armendariz; eta ez beste filme bat egiten, baizik eta *Secretos del corazón*-ek sortutako zurrumbiloan oraindik sartuta. Oscar sarietarako hautagaia, berari buruzko liburuaren aurkezpena, ikastaro bat Malagako Zinemaldian, *Príncipe de Viana* saria jaso beharra... Eta telefono mugikorrik ez nafarrak. Etxera bueltan, gure mezuz gainezka aurkitu zuen erantzungailua, eta, zorionez, elkarrizketa eskaini zigun, mailetak berriro egin aurretik.

Zinarekin izan zenuen lehen harremana nahiko berezia izan zen.

Lehengusuak eraman ninduen Peraltako zinemara. Gela batean sartu, argiak itzali ziren, eta harri eta zur geratu nintzen, aurrean nuen horma zuri batean jendea ateratzen hasi zenean. Hormako jendeak niri hitz egiten zidan. Pantailan emakume ilehori oso eder bat azaldu zen, komoda batek kutxatxo bat hartu, eta norbait eman zion. Nik uste nuen kutxa niri eman nahi zidala, eta erabat asaldatuta sentitu nintzen. Eskua luzatu nuen hura hartzeko, baina aurrean zegoen emakumearen ileari heldu nion. Emakumeak buelta eman zuen eta oihuka hasi zen. Lotsatuta, zinetik korrika atera nintzen.

Hala ere, zinematik korrika ihes egitetik arrastaka atera beharrera pasa zinen.

Egia esan, denbora dezente pasa zen ni zinemara bueltatu arte. Iruñara bizitzera joan ginenean, han zinea genuen edonon: auzoan, eskolan... Aurreko esperientzia traumatikotik saio jarriatara pasa nintzen. Hiru t'erdietan joaten nintzen auzoko zinera eta ez nintzen gaueko hamar t'erdia arte ateratzen. Egun batean zineko bolumenta kendu eta bozgorailuetatik esan zuten ama zain nuela zinearen atarian. Atera nintzenezan ama larrituta zegoen, gaueko hamaikak zirelako eta oraindik ez nintzelako etxera bueltatu.

Hamalau urterekin gurasoei esan zenien zinea ikasi nahi zenuela.

Jakin nuen Madril bazela zinea ikasteko eskola bat, eta gau batean ausartu nintzen gurasoei esatera zinea ikasi nahi nuela. Biak isildu egin ziren, elkarri begiratu, eta amak esan zion aitari: "Teilatu gorriskadun etxera eraman beharko dugu semea". Horrela deitzen genion etxe aurrean genuen psikiatrikoari.

Kartzelan ere izan zinen. Esperientzia gogorra izan zen, ezta?

Kartzela ez hainbeste; komisaldegikoa izan zen okerrena. Saihetsezur bat hautsi zidaten, kolpatu ninduten, odolbildu bat egin zitzaidan eta biriketan

arazoak izan nituen. Kartzelara bidali ninduten, eta bost urteko zigorra eskatu zuten arren, handik hilabete eta erdira kalean nintzen berriro baldintzapeko askatasunean. Komisaldegikoa jasan eta gero, kartzelak bost izarreko hotela zirudien.

Burugogor eta egoskor fama duzu. Fama da ala benetan zara horrelakoa?

Zerbait buruan sartzen bazait, kontrakoa erakusten ez didaten bitartean, aurrera egiten dut.

Zure filmeetan, elkarrizketez gain, garrantzi handia dute keinuek, isiltasunak, begiradek...

Bai. Agian horixe da aktore bat zuzentzean gehien tematzen naizen arloa. Nahiko malgua naiz interpretazioari lagundu diezaioketen kanpoko keinu edo elementuekin. Baina elkarrizketen erritmoa, esaldiena, begiradana, erantzunen edo sentimenduen *tempo*-a... horietan guztietan nahiko zorrotza naiz. Batez ere gertuko planoetan, uste baitut hor dagoela pertsonaiaren eta interpretazioaren funtsa. Erraza dirudi, baina gauza xumeak lortzea da zailena.

Ez omen zaizu gustatzen filmeetan dena azaleratzea, ikusleari dena erakustea.

Ikusleak berak ere istorioa osatu behar du, bere aldetik zerbait jarri behar du istorioa eraikitzeko. Gauza asko ez ditut azaleratzen, eta, neurri batean, horrela lortu dut ikuslea inplikatzeko eta istorioan parte hartzea.

Nolakoa izan da Hollywoodeko esperientzia?

Ez naiz hara joan bertan lan egiteko asmotan. Nire ilusioa da zinea nire ingurunean eta ezagutzen dudan jendearekin egitea. Esperientzia interresgarria izan da, eta jendea ezagutu dut. Orain ulertzen dut zergatik esaten duten Hollywood industria bat dela. Hura beste mundu bat da eta ez du zer ikusirik geurearekin. Ez zaie interesatzen kontatu nahi duzun istorioa, baizik eta zenbat balioko duen, zein aktore izango dituen eta noiz merkaturatuko den.

Jakes Goikoetxea
Kazetaria

Legezko Gordailua: BI-1141-93. Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Wellingtongo dukea 2. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 18 76 00. Faxa: 945 18 76 03. / <http://www.ivap.com>



Norma aldatzea

Norma aldatzen ari ote ginen esan zuen Juan Gartzia *Joskera lantegi* aurkeztu zuenean Donostian. Bada, ari ez, aldatuta dago norma! Neuk probatu (nozitu) dut ondo egitura batzuk erabat kanbiatuta daudela.

Itzultzaile-administrari bat hartzeko hauta-proba batzuetan, esate baterako, esan zidaten *el concejal de tráfico, Patxi Beloqui ha señalado...* esaldia euskarara egoki itzultzeko *trafikoko zinegotzia den Patxi Beloquik esan du...* jarri behar dela. Eta era horretako egitura erabiltzen du euskaltzain oso batek ere, apirilaren 17an *Egunkarian* beste lagun batekin batera atera zuen artikuluan, konparazio baterako: *EHUko irakasle den Fito Rodríguez-ek...*

Beste egitura batekin ere –adibide bat gehiago jartze alderahalatsu ibili nintzen. *Altuna y Uria-ri ematea bidea egitea* jarri

nuen nik, eta *bidea egiteko lanak*-edo behar dela esan zidaten, *ematea* ere bizi egokia ez ote zen adierazi eta gero.

Bi adibide besterik ez dira, baina, edozein idatzi hartuz gero garbi ikusten da beste hainbat gauzatan ere erabat aldatuta dagoela norma, eta lehen euskaraz ondo idaztea zena, gaizki idaztea dela gaur; atxearena piska bat errespetatu eta erdarazkoaren kalakoa egin behar dela, bestela ulertu ere ez dutela egiten-eta “euskara-teknikari” askok. Garbi ikusten dut, orobat, norma berria ikasi beharko dudala nik ere, norma aldatuz gero euskara galtzeko bidean izango ote den-edo begira egon gabe, laister fitxatuko bainau bestela hemen den ekiporik fuerteenak: INEMek.

Pello Goikoetxea
Donostia

JOXERRA INTERÍNEZ
BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

✉ interinez@mindless.com

LEKUALDATZE-LEHIAKETA DELA ETA, KARRERAKO FUNTZIONARIO BATEK NERE LANPOSTUA HARTUZ GERO, SAIL GUZTIAK BORROKA LATZEAN AMILDUKO DIRA NERE EZINBESTEKO ZERBITZUEZ BALIATZEKO. BAINA LANPOSTU HONETAN HAINBAT URTE IGARO ONDOREN, OROIPEN ON ASKO DATOZKIT BURURA...

GOGOAN DITUT ADIBIDEZ NERE LEHEN EGUNAK ADMINISTRAZIOAN, NOLA HOBETUZ JOAN DIREN NERE LAN-BALDINTZAK...

TELEFONOA ETA GUZTI! ORAIN BAKARRIK LINEA FALTA ZAIT

EDO ZENBAT ALDIZ PLANEATU DUDAN ZERBITZUBURU TXIT ARGIAREN AURKAKO MENDEKU GOZOA...

EDO NERE LANKIDE MAITEARI NOLA ESKERTU NAHI IZANGO NIOKEEN BIHOTZEZ (EDO HOBETO ESANDA, BIHOTZEAN) NIGATIK EGIN DUEN GUZTIA...

EDO MARFILEZKO DORREAN BIZI DEN ZUZENDARI TXIT GORENARI OPORRAK ESKATZEKO GAINDITU BEHAR IZATEN DITUDAN OZTOPOAK...

EDO LANKIDE ERRETZAILEEN ESKUZABALTASUNA BERAIEEN KEA NEREKIN KONPARTITZEAN...

ZUZENDARI TXIT GORENA 3 SEGUNDUZ IKUSTEKO OHOREA ESKATU NAHI NUKE UMILKI, LEKAI JAUNA

ZUZENDARITZA

EDO LANKIDE BETERANOEN BROMA INUXENTEAK...

ETA ABAR. DENA DELA, POZIK NAGO NERE BEHIN-BEHINEKOTASUNA AMAITUKO EZ DELAKO, EZ HORIXE. ORAIN, BEHIN BEHINEKO LANGABETU BIHURTZEKO AUKERA PAREGABEA IZANGO BAITUT!

Udal agiriak

HAEek eginkizun ugari ditu, baina, horien artean, euskal idazki administratiboen normalizazioa bultzatzea da garrantzitsuenetarikoa. Horretan aritu gara azken urteotan –gure argitalpenetan eskaintako idazki-ereduak, lekuko-, eta horretan ahaleginduko gara aurrerantzean ere.

Udal-agiriei dagokienez, hutsune batzuk, behintzat, bete ditugu. Alde batetik, idazki orokorrak landu ditugu maiz: ziurtagiriak, bilera-deiak, aktak... Beste alde batetik, zenbait udal-espediente. Bagenekien, ordea, oraindik ere idazki asko geratzen zitzaizkigula aztertu gabe nahiz eta udaletan egunero-egunero erabiltzen diren; eta horietako batzuei ekitea erabaki genuen.

Metodologia

Euskal Herriko udaletako idazkiei erreparatzen badiezue, berehala ohartuko zarete kontu berbera adierazteko –esate baterako, herritar baten erroldatzea ziurtatzeko– hamaika eredu ezberdin erabiltzen direla. Batzuk, nahiko onak; beste batzuk, nahiko txarrak; eta mordo bat, tamalez, erdara hutsean. Egoera horren aurrean, udal askoren kezka jaso genuen, eta, arazo hori ahalik eta lasterren konpondu nahian, Joxe Ramon Zubimendirekin jarri ginen harremanetan, eta lana aurrera ateratzen laguntzeko eskatu genion.

Lehenengo eta behin, hainbat udali esan genien herritarrek gehien eskatzen dituzten agiriak eta udal-langileei lagungarrien zaizkien paperak bidaltzeko. Ezin eskerrak eman erantzun zizkiguten guztioi; ezin aipatu gabe utzi, ordea, horietako batzuk: UEMA, Antzuola, Bergara, Arrasate, Zumarraga, Lekeitio, Laudio, Ondarroa, Hernani...

Udal horiek egindako aukeraketa Jose Ramoni helarazi genion, berak, bigarren hautaketa bat egin ondoren, bere idazki-ereduak proposa zitzaizkan. Neguan eta udaberrian jardun dugu honetan: berak proposamenak bidali, eta guk estilo, terminologia eta zuzenbide aldetik zuzendu. Eta berriro ere, udal ugari, eta batez ere, UEMA, lagun eta lankide zuzenketa horietan.

Idazkirik erabilienak

Ahalegin horren ondorioz, laster izango duzue eskuartean udal-agiri honen bilduma, bai liburu batean bai interneten. Idazki-sorta hori 70ren bat dokumentuk osatzen dute, den-denak euskara zuzen eta argian; eta, horrekin batera, estiloko argibide batzuk ere emango dira, kalitatezko testuak errazago idazteko. Hona hemen, beraz, dokumentu horietako batzuk eta beraien sailkapena:

- Ziurtagiriak (erroldarekin eta zergekin zerikusia dutenak, ...).
- Eskabideak (herritarrek administrazioari egin beharrekoak).
- Kirolegia (arauak, ...).
- Liburutegia (bazkide txartelak, mailegua itzultzeko eskaria, ...).
- Artxiboa (ikertzaile-fitxa, bilaketa-eskabidea, ...).
- Gizarte-ongizatea (elbarrientzako aparkalekuak, zaharrentzako dirulaguntzak, ...).
- Udaltzaingoa (salaketak, isunak, alegazioak, ...).
- Udaletxe barrukoak (baimen-eskabideak, gastuen ordainketa, ...).
- Hirigintza (obrak egiteko eskabideak, baimenak, ...).
- Ogasuna (zerga-kitapenaren jakinarazpena, zerga ordaindu beharrekoarena, ...).

Ezaugarriak

Garbi dago Joxe Ramon Zubimendik egin duen lan mardul honetan ez dituzuela aurkituko udal-idazki guztiak, ezta gu-txiago ere, baizik eta udalen beraien ustez, erabilienak.


Udal batzuek esango dute idazki horiek dagoeneko euskaraz dituztela eta zezen handiagoei ekin behar zitzaizela. Arrazoia dute; baina kontuan izan behar da udal askok aski dutela xexen hauek toreatzearekin. Hortaz, lan hau erreferentzia baino ez da izango euskara kontuetan aurreraturik dauden udalagintza; arazo gehiago dituzten horientzat, berriz, abiapuntua eta oinarri sendoa izango delakoan gaude.

Bestalde, udal guztiak ezberdinak dira. Horrek esan nahi du gure idazki-ereduak ezingo direla dauden horretan ezarri; ordea, moldatu eta egokitu beharko dira udal bakoitzaren ezaugarrietara. Azken batean, gure proposamenek estilo bat zabaldu nahi dute, kalitatean oinarritutako estilo bat alegia, guk lan honetan jaso ez ditugun baina zuen eguneroko lanean erabiltzen dituzten idazkietarako. Aztertu, bada, gure ereduak; ikusi zertan lagun diezaieketen mahai gainean daukazuen horiei; eta, egoki iruditzen bazaizue, saia zaitezte zuen erakundeko paperak moldatzen. Bide beretik abiatuz gero, denok, irabazle.

Bukatzeko, bakarrak esan nahi dut lan xumea dela hau, pixkanaka-pixkanaka zuen laguntzaz eta iradokizunaz osatuko duguna. Bitartean, baliagarria izan dadila langile euskaldunen jarduerari errazteko, herritarren hizkuntza eskubideak hobeto bermatzeko, eta administrazioan kalitatezko euskara zabaltzeko.

Joseba Lozano

HAEko administrazioko hizkeraren arduraduna



Aingeru Epaltza:

“Nafar roako euskaldunak kata kunbetatik atera gara, nahiz eta gethora pasatzeko izan”



Iruñarra, 38 urte, bi seme-alaba ditu. Kazetaritza ikasi zuen eta kazetari aritu zen *Deia*, *Navarra Hoy* eta *Euskal Telebistan*. Duela zortzi urte itzultzaile lanetan hasi zen Nafarroako Gobernuan. Idazlea ere bada; narratiba lantzen du, eta hainbat sari jaso ditu; azkena, Euskadi saria. Gaur egun, Nafarroako ikastolen lehendakari dugu.

Zein da itzultzaile eta idazle baten eginkizuna hizkuntz normalkuntzaren arloan?

Barne normalkuntza da, batez ere, gure zeregina: hizkuntzaren beraren normalkuntza. Alegia, arauak ezartzea eta arauak garatzea, kontuan izanik arauak aplikatzeaz gain horiek desaplikatzean ere datzala gure lana; izan ere, batzuetan, arauak haratago jo behar izaten dugu. Bai idazterakoan bai sormen lana egiterakoan eta bai itzultzerakoan maiz izaten dugu aukera arau-emai-leek aintzat hartzen ez dituzten gauzez konturatzeko; eta, askotan, arauak kontuan hartzeaz gain, geure irizpideak aplikatzen ditugu, ez arauen kontra joateko, arauak saihesteko edo arauen atzetik pasatzeko baizik.

Lana, beraz, estuago lotzen zaio hizkuntzaren korpusari estatusari baino. Hala ere, estatusaren arazoan ere badugu zer esanik. Ez dakit geuk hizkuntzaren estatusari halako itzal bat ematen diogun ala ez, baina, behintzat, garbi dago gure lana lagungari gerta daitekeela horretarako. Adibidez, orain dela gutxi hainbat lagunek adierazi dute hutsean oinarrituta dagoela euskal kultura. Bada, horren kontra bi gauza egin daitezke: erantzun sutsu bat plazaratu —jarrera hori defendagarria eta ona izan daitekeelarik—, edo praktikaren bidez agerian jarri esaten diren gauza horiek ez direla egia.

Koldo Izagirrek orain dela urte t'erdi *Egun-karian* argitaraturiko artikulu zoragarri batean, honako ondorio hau atera zuen: euskal kulturaren eta euskararen alde egin daitekeen gauza bakarra dela ahalik eta hobekien idatzi, eta idazlerik hoberena izan; eta guk, itzultzaileok eta idazleok, hizkuntzaren auzi honetan zeregin edo xederik badugu, horixe da: hoberenak izan, hizkuntzari prestigioa eman hemen eta hemendik kanpo, eta hizkuntzaren aldarrikatzaile izan, hizkuntza honetan ere gauza baliotsuak egin daitezkeela erakutsiz, eta ez bakarrik Euskal Herrirako eta euskal hiztunendako, denentzako baizik.

Joskera ilunaren salatari

Nola uztartu daitezke hizkuntzaren izen ona eta, batez ere, kalitatea, alde batetik; eta hizkuntza hori herritarrentzat ulergarria izatea, bestetik?

Hori gure eguneroko apustua eta erronka da. Egia esan, bi mutur horiek uztartzea zaila izaten da oso; izan ere, hor badira gizarte

faktore batzuk, oso garrantzitsuak. Askotan gure idatzien hartzaileak gaizki edo erdizka alfabetaturiko herritarrak izaten dira, eta horrek zailtasun izugarriak ekartzen ditu, uztartu behar izaten dugulako gure lanaren epe motzeko errentagarritasuna eta epe luzerakoa. Azken batean, gure hartzaileak ez dira beti berdinak izango, eta lan egin behar dugu euskararen egoera nolabait hobetuko delakoan. Hori horrela, borroka bat edo dialektika bat sortzen da, batzuetan epe luzerako errentagarritasun horren aldeko hautua eginez, eta, besteetan, epe motzerakoaren alde, hau da, gaurko hitzunen batez besteko maila hori dutenentzako lan eginez. Hala ere, orohar, gutxika gutxika oreka baterantz ailegatzea da egokiena, eta nik uste dut lortzen ari garela hizkuntzaren kalitatea galdu gabe eta etorkizuneko egoera horri begira, gaur eguneko hiztunentzat lan egitea. Oraindik korapiloa askatu gabe dago, eta hortxe dago koska, baina ziur asko hemendik 10 urtetara arazo gutxiago izango ditugu, eta are gutxiago 20 urte barru.

Itzultzaileok lan egiten dugunean badakigu gure hartzaileak nor diren; badakigu, esate baterako, zuzenbide arloan gure produktzioak ez dituela ia inork irakurtzen, euskaraz eta gaztelaniaz dagoen lege zein dekretu baten aurrean euskaldunek euskarazkoa baztertzen dutelako. Bestela esanda, Nafarroan badakigu 20 lagunentzat lanean ari garela. Hala ere, nik uste dut gure lanean garrantzi handiegia ematen diegula hiztegi kontuei, eta gutxiegi, joskerari. Orain ez naiz Juan Garziaren liburuaz arituko, baina, nire ustez, gure artean hitzek sekulako ika-mikak sortzen dituzte; zein hitz hautatu behar den halako gauza izendatzeko, eta hor ibiltzen gara *esleitu* ala *adjudikatu* erabili behar den, *helegite* ala *errekurtso*, eta orduak eta orduak ematen ditugu horretan. Ez gara ohartzen hiztegi-

leak ere badirela, horiek ere jan behar dutela, eta arazo horiek hiztegi on bat ondoan izanda konpon daitezkeela. Joskerarena, berriz, ez da hain erraza; eta joskera hori iluna bada, hor ez dago kristaurik kontua argituko duenik, hiztegi batek ez baitizu joskera ilun bat argituko. Hitzei sobera denbora ematen diegu, eta, azken finean, administrazioko hizkeraren ardatza joskera da eta hor bai egin behar dela ahalegin handi bat; gauza bat oker edo modu konprenigaitz batean itzultzetik modu txukun eta konprenigarri batean itzultzera dagoen jauzia joskeraren baitan gelditzen da. Hitzen batek zailtasunak sor ditzake, bai, baina traba hori gainditzeko moduak badaude; aldiz, joskera ilun bat gainditzeko modurik ez dago, non ez duzun erdal testu osoa aurrean.

Hiztegi kontuei
sobera denbora
ematen diegu, baina
administrazioko
hizkeraren ardatza
joskera da

Nafarrak, euskararen alde

Nafarroari dagokionez, zein hausnarketa sortarazten dizu Vasuencearen Legeak, 1998tik begiratuta? Epe ertainean aldatzeko posibilitaterik bai?

Aldatzeko aukera izan genuen orain dela lau urte. Une politiko egokia izan zen indar korrelazioei dagokienez, baina hura galdu egin zen. Aukera hura orain ez daukagu eta ez dakigu ezta berriro egongo den ere. Orduko eta oraingo gizarte eskaera berdina bazen ere, indar politikoen korrelazioa egokiago zen lehen, eta une honetan agertzen ari diren datuek agerian jartzen dute orain dela lau urte indar politiko jakin batek, HBk garbi erranda, hartu zuen joeraren harrigarria. Nik ateratzen dudan ondorio bakarra da garai hartan ez zela sinesten Erribera aldean euskararen aldeko inolako mugimendurik egon zitekeenik eta, hori dela-eta, momentu horretan planteiatzen zen aldaketaren garrantzia gutxietsi egin zen. Datuek erakutsi dute, ordea, une hartan aldaketa izan balitz D ereduak irekitzen hasiko zirela Erribera aldean, eta hango ikastolen egoera askoz hobea izango zela egungoa baino. HBren abstentzioa dela medio, aldaketa hori ez zen inoiz gertatu. Litekeena da abstentzio horren arrazoiak politikoak izatea, baina bistan da ez zela aintzat hartu aldaketa horrekin etor zitekeena. Tira ba, aukera hori galdu egin da eta batek daki noiz izango dugun beste bat, zeren eta trenak behin pasatzen baitira, eta ni une honetan oso ezkorra naiz.

Erriberan eta horrelako lekuetan euskararen aldeko mugimendu bat sortzeko asko lagunduko luke nahiz eta, nire ustez, Nafarroako euskararen etorkizuna Iruñerrian egon. Nik oso garbi daukat hori, baina oso lagungarri izango litzateke Erriberakoa, azken finean Erriberak badu halako pisu ideologiko bat, halako indarra ametsetako Nafarroan. Horrenbestekoa non batzuetan nafarra izatea erriberakoak bezalakoa izatea baita. Hau da, Tuteran ere euskaldunak badirela edo euskara ikasten ari direnak badirela jakiteak eragin sikologiko bat dakar, Lizarran edo Zangozan edo Tafallan gertatu den bezala. Kontuan izan behar da duela 25-30 urte euskara gauza arrotza zela herri horietan eta gaur egun ez dela ez arrotza, ezta ere mendialdeko tipo basa horien kontua edo Iruñerriko tipo iraultzaile edo susmagarri batzuenak. Euskara eguneroko gauza da eta mutur aurrean daukagun zerbait: Nafarroako euskaldunak katakunbetatik atera gara, nahiz eta gethora pasatzeko izan.

Bi epei eztabaidagarri izan dira azken urteotan Nafarroan: Euskal Herriko Irratiari buruzkoa eta Barañaingo Udaleko enplegu publikoko eskaintzarena. Zer deritzezu horiei?

Iritzia Merino Zalba epaileak berak eman zuen, baina ez naiz ni epaileak markatzen hasiko, bestela izugarriak etorriko zaizkit gainera. Dena dela, argi dago hor azpian asmo txarren bat dagoela eta horrek kokatzen gaituela euskarak Nafarroan duen arazo nagusietariko baten aurrean: estatusaren problemaren aurrean, alegia. Gero eta garbiago daukat kontatu nahi izan diguten ipuina ez dela egia; hain zuzen ere, jendea euskararen aurka dagoela Nafarroan. Gertatzen dena da hemen euskararen aurka dagoen jendea oso ongi kokaturik dagoela *establishment* politikoan, gizartean, ekonomian, eta judikaturan. Horrexegatik esaten dut euskarak Nafarroan kopuru arazoak edukitzeaz gain, estatus arazo handi bat ere baduela. Gutxi gara, eta gainera, itzal gutxi-koak.

Diplomazia lagun

Azken hilabeteetan gauza ugari izan dira: justizia administrazioaren hizkuntz normalkuntza, Abokatu Euskaldunen Sindikatua, etab...

Alde batetik, arazoa mahai gainean jarri da esanez legeak daukela, erabakiak ere bai, baina denborak aurrera egin duela eta egoerak ez duela hobera egin. Euskara pixkanaka-pixkanaka beste eremu eta alor batzuetara zabaltzen ari da, baina oraindik ere gelditzen dira zenbait esparru euskarari inolako sarbiderik ematen ez diotenak. Azken finean, abokatuek egin dutena zera izan da: ukabilkada bat jo mahai gainean eta “aski dugu” esan. Bestalde, egia da harreman publikoetako ikastaro bat egitera bidali beharko genituzkeela. Hala da, bai. Euskararen auzian batzuetan horixe da falta dena; Nafarroan, adibidez, oso maiz gertatzen da; arrazoizko arrazoiak botatzen dira baina ez modurik egokienean, eta, nire ustez, azken 20 urteetako tragedia, Nafarroan baina Euskal Herri osoan ere bai, zera da: ez dugula jakin hori neurtzen, eta arrazoiak gure alde badugu ere, ez dakigu gure arrazoiak ongi saltzen, eta horrek etsaia sortzen dizkigu. Horrexegatik esan dut arestian harreman publikoetarako ikastaroak falta direla batzuetan euskararen aldeko mugimenduetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako hizkuntz politika eredugarri al da Nafarroarentzat? Elkarlaguntza nahikoa al da?

Bi egoera desberdin dira eta bakoitzak bere norabidea du. Hala ere, Elkarre Autonomoko hizkuntz politika eredugarri izan da gauza batzuetan, eta baita beste batzuetan ere, zer ez den egin behar jakiteko. EAEko normalkuntza prozesuaren berri zuzena daukat, eta ematen ari diren zenbait pausu onak dira, baina oraindik ez da lortu ongi neurtzea nori zuzendutako neurriak diren eta zein etekin ateratzen zaion aurrera eramaten den neurri bakoitzari, gizartearen eta erakundearen arteko haustura nabaria baita arlo honetan; Nafarroan egin den apurra, ordea, udaletatik egin dena, bereziki, lotuago dago gizarte mugimenduekin. Nafarroan ere administrazio publikoa gizartearen atzetik doa, bai; baina, egindakoa gutxienez ez da egin gizartean dauden indarrak kontuan izan gabe. Aldiz, gizartearekiko halako uztartze bat bilatu da. Gatatzak egon dira, jakina; baina ez horrenbeste.

Beste lurraldeetako hizkuntz normalkuntzako prozesuak ezagutzen dituzu. Ba dugu oraindik zer ikasterik ala besteei irakasteko moduan gaude?

Non ikasi eta non irakatsi badugu. Nire ustez galegoek behar bada guregandik ikasi beharko lukete eta guk katalanengandik. Egoera soziolinguistikoak oso desberdinak badira ere, inon erdurik aurkitzekotan Katalunian aurkituko genuke, nahiz eta badakidan katalanena hona inportatzerik ez dagoela. Dena dela, katalanei gehiago begiratu izan bagenie, gaur egun ez genuen honenbeste arazorik izango eta hasierako hankasartze batzuk ez ziren gertatuko.

Xabier Iriondo
Abokatu



Mundua on line

Internet 2

Azken aldian WWWk beste esanahi bat hartu du: *World Wait Web* (Munduko Itxaron Sarea). Planeta osoan zehar 100 milioi erabiltzaile baino gehiago dituen Internet sarea mantsoegi dabil, irudiak oso astiro iristen dira, eta bideoa oraingoz amets urruna da. Erabiltzaileek ez dute denbora alferrik galdu nahi euren pantailari begira.

Egoera honi aurre egiteko, Estatu Batuetako gobernuak proiektu berria aurkeztu du. Al Gore lehendakariordeak dioenez, *Encyclopædia Britannica* tamainuko informazioa segundu bakar batean bidali ahal izango da Internet 2 sare berrian, gaur egungoa baino askoz ere azkarragoa izango baita.

Abilene izeneko proiektu hau elitezko komunikabide bihurtu nahi dute; hori horrela, Internetek erabilera komertzialerako balioko du, eta beste honek, ordea, proiektu zientifikoetarako (telemedikuntza, eta abar).

Bere lehenengo fasean Internet 2-k 100 unibertsitate lotu nahi ditu, gaur egungo abiadura 1.000 bider hobetuz. Transmisio-abiadura hauek hain ikaragarriak izanda, zientzilariek izen berriak asmatu behar izan dituzte. Megabyteak eta kilobyteak prehistorian geratu dira: oraingo unitatea LOC/segundu-koa da, Estatu Batuetako Kongresuko Liburutegia (*Library of the Congress*) segundu batean bidali daitekeen aldi-kopurua.

1999. urtearen bukaeran, hautatu diren unibertsitateak lotuko dituzten lehen komunikazio-nodoak prest egongo direla espero dute. Sare berriaren errentagarritasuna ezin da zalantzan jarri.

Luis Elizondo
luis-elizondo@ivap.es

F

agorrek euskara erabiltzeko akordio bat sinatu du

Akordio hori garrantzitsua da euskara lan munduan sartzeko, batez ere kontuan hartzen badugu Fagor taldea bederatzi partaidek osatzen dutela, eta guztien artean 6.500 langile biltzen dituztela. Euskararen erabilera plana EMUNen esku izango da. Kooperatiba hori sortu berria da, eta lan arloa euskalduntzeko zerbitzuak eskaintzen ditu: erabilera plangintzak, euskara teknikoa lantzeko ikastaroak, itzulpenak, euskarazko frogak etab.

H

AEEK akordio bat sinatu du udalekin

HAEEK eta Euskal Autonomi Erkidegoko udalek akordio bat sinatu dute hizkuntz trebakuntzari eta euskararen normalizaziorari beste bultzada bat emateko. Akordioaren arabera, HAEEK euskalduntze, alfabetatze eta 4. hizkuntz eskakizuneko ikastaroak antolatuko ditu, dirulaguntzak emango ikastarootara joaten diren langileen ordezkapenak egiteko, eta sustatu egingo ditu zuzenbidearen eta administrazioaren arloko terminologia eta itzulpen gintza. Udalek, euren aldetik, erraztasunak emango dizkiete langileei ikastaroetara joateko, eta, horretarako, egokitzapenak, ordezkapenak eta lanaldiaren murrizketak erabakiko dituzte.

E

uskara Biziberritzeko Plana onartu du Euskararen Aholku Batzordeak

Euskararen Aholku Batzordeak onartu berri du Euskara Biziberritzeko Plana. Plan hau datozen hamar urtetarako izango da, eta hainbat arlo hartuko du bere gain: irakaskuntza, familia, aisia, kirola, erlijioa, lan-esparrua, euskalduntze-alfabetatzea, administrazioa, ...

Egitasmoak hiru oinarri nagusi ditu: lehena, belaunaldien arteko etenik ez egotea; bigarrena, erabilera areagotzea; eta hirugarrena, euskararen bidezko hizkuntz elikadura bultzatzea (liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista, ...).

Bi batzorde berri sortzea ere erabaki dute: Lege Garapenerako Batzordea eta Jarraipen Batzordea. Helburuak eta egitasmoak aurrera ateratzeko behar diren legeak garatzeaz arduratuko da lehena; eta bigarrenak, berriz, planaren helburuak zenbateraino betetzen diren aztertu beharko du.

A

urrematrikulazioan D eredia nagusi EAEn

Lehendabiziko aldiz, D eredia nagusi izango da datorren urtean Euskal Autonomi Erkidegoan eskolaratuko diren haurren artean. Guztira 15.674 ikasle berri izango dira datorren ikasturtean, eta horietatik %55,9 D eredian aurrematrikulatu dira; B eredian, berriz, %31,3; eta azkenik, %12,8, A eredian. Aurreko urteetako datuei begiratuta, D eta B ereduek zertxobait gora egin dute, eta A ereduak behera.



Euskal Estatistika Erakundeak Interneten ireki zuen bere web-gunea pasa den maiatzean. Bertan, EAERI buruzko informazio ugari eskaintzeaz gain, Estatuko eta nazioarteko beste erakunde batzuen datuak ere agertzen dira. Horretaz aparte, Eustatek bere irudi korporatiboa ere eguneratu du. Aldaketa horren lekuko bere logotipo berria da.

Bat eta bat ez dira izaten beti bi

Ez dakit kontatu nahi dudana ulertuko didazuen. Ez dut zalantzarik zuen ulertzeko gaitasunaz, ez da hori arazoa. Koska beste leku batean dago: neure buruari diot nik zalantza, ez beste ezeri eta ez beste inori. Gainera, hartu dudana ere ez da nola-halakoa: ez da batere erraza niri gertatutakoa lerro motzegi hauetan sartzea, itsaso zabala etxeko baineran sartzen ez den bezala. Ezinezkoa da nirea bezalako amodio handia lau letratan kontatzea. Berebiziko abildadea behar da horretarako eta ni ez naiz hainbesterako jaioa. Hala ere, lerro hauetan aurrera egiteko pazientzia baldin badaukazue, saiatuko naiz adierazten ni bezalako gaurko gizon bati, zertzuk gerta dakizkiokenen Diputazioko bulegoetara joatea erabakitzen duenean.

Gure aitaren pinadi kontu batzuk argitu nahian hurbildu nintzen Diputazioko Nekazaritza Sailera. Gure aita ez dago zeharo zahartua oraino, baina, hala ere, beti bidaltzen nau ni burokraziaren korapiloak askatzera.

– *Hik badakik hori eta gehiago egiten Imanol* –esan ohi dit– *ez nian alferrik ordaindu bost urteko karrera.*

Zekena, zikoitza eta mesprezagarria izaten ere badaki gure aitak hala jartzen den bakoitzean. Ez da ohartzen munduko lan guztien artean, gorrotagarriena horixe dela niretzat, burokraziaren mailadietan gora eta behera ibiltzea. Baina berarekin disputan hastea baino hobe amen egin eta agindutakoa betetzea, bestela igoal esaten dit zakarki:

– *Beste zer eginik ez zeukak hik bezalako mutil-zahar batek egun guztian eta, hala ere, aitari ezetza. Hori duk balorea!*

Purrustada berriren bat entzun baino lehen, baietz esan nion, baietz, neu joango nintzela Diputaziora paper haien bila. Gure aitak pinadia kendu eta bertako arbolak sartzeagatik zein laguntza jaso zitzakeen jakin nahi zuen eta horretarako bete beharreko papertzarrak ere ekartzeko agindu zidan. Ondo hezitako gizona naiz ni eta badakit gurasoak ondo zaindu beharreko altxorra direla. Hala ere, gure aita pikatzeko makinan sartuko nuke nik batzutan, txakurren jana egiteko. Eutsi egin nion baina nire barneko galtxagorriari eta aingeru baten gisan jokatzeko deliberatu nuen, odoltxartzen jarraitu ordez.

Ostegun batez, bulegoa itxi eta Diputaziora abiatu nintzen, beraz. Aspaldiko partez goiz ederra egiten zuen eta neu ere jabetuta nengoen barnea pozik esnatu zitzaidalda egun hartan. Bezperan hiriko kaleak zikinak iruditu zitzaizkidan beste, garbiak eta txukunak iruditu zitzaizkidan goiz hartan. Jendea ere ederragoa ageri zen hiriko joan-etorrietan.

Diputazioko atean bertan eduki nuen lehenengo ezustekoa, gaztelaniaz galdegin baitzidan ertzainetako batek nor nintzen eta zer egin behar nuen Diputazioko jauregian. Nik, jakina, euskaraz erantzun nion Imanol Etxarri nintzela eta Nekazaritza Sailera nindoala paper batzuren bila. Ertzainak euskaraz ez

zekiela eta erdaraz egiteko eskatu zidan. Berehala esan nion ezetz, jai zeukala nirekin.

Alde egiten utzi zidan orduan eta igogailuan sartu nintzenean, gertatutako ezustearekin ez nintzela bestetan bezainbeste hase-rreru etorri zitzaidan burura. Sekula inori ez diot gaztelaniaz egiten, aspaldiko erabaki irmoa dut hori eta, poliki-poliki, hainbeste urtetan ikasitakoa ahazten ari naiz. Gaztelaniaz hasiko banintz ere, ez nago seguru zuzen egiten asmatuko nuenetz aurrera. Ohorea da ahaztura hori niretzat. Desprogramaketa borondario baten emaitza. Gogoeta horietan nebilela, Nekazaritza Saileko iladan jarri nintzen, txanda noiz tokatuko zain. Orduan ikusi nuen estrainekez Marisol. Leihatilaren beste aldean zegoen eta bere begiek ere nireekin egin zuten topo, iladan zeuden buru guztien gaintik.

Izugarria izan zen kalanbrea. Ikaragarria ezustekoa. Ikusiaz bat ohartu nintzen emakume hura zela, eta ez beste inor, niretzakoa. Iladan zenbat eta aurrerago, orduan eta urduriago. Berak ere antzeko zerbait sentituko zuen niganako, antza, noizean behin begiak jasotzen baitzituen lotsaz, nireak jende artean aurkitu arte.

Azkenean etorri zen nire txanda eta nahi nuena hitz toteldurik esaten asmatu nuenean, berak ez zekiela euskaraz erantzun zidan eta egiteko erderaz, mesedez. Hori ezinezkoa zela erantzun nion nik, erabaki handiko gizona nintzela eta. Atzera egin ordez, aurrera egin zuen berak, ordea, eta bulegoko ertz batean galduta zegoen gizon txiki-txiki bati deitu zion. Tomas zeukan izena eta itzultzailea zen ogibidez. Hark egin zituen gu bion arteko zubi guztiak. Gizon fina da Tomas, isila, apala eta zerbiztaria. Inork ez bezala iragazten ditu berak nire hitzak gaztelaniara eta bere bitartez lortu nuen Marisol neureganatzea. Nik esan eta Tomasek itzuli, halaxe lortu nuen Marisolekin ezkontzea.

Hamar urte dira handik hona, eta munduak ez du ezagutu gurea adinako zorionik. Marisol baino lehenagoko garai haietan, erdi gizona baizik ez nintzela pentsatzen dut orain eta berari esker bizi naizela lur honetako zeruan.

Alabaina, ingurukoak ez dira oraindik ohitu. Gure bi seme-alabak ere ez. Beti esaten digute guri gertatzen zaiguna ez dela batere normala, bikotea bainoago, hirukotea garela gu, alegia. Marisol, neu eta gurekin beti eta leku guztietan egoten den Tomas: hipermerkatuan, zinean, lagunarteko afarrietan... baita ohean ere. Baliteke harrigarria gertatzea norbaiti baina, zer egingo diogu, bada? Marisol eta ni guztiz zorionsuak gara horrela.

Hasier Etxeberria
Idazlea

Burokraziaren
mailadietan gora
eta behera ibiltzea
da niretzat
gorrotagarriena



Daniel Cassany , hizkuntzalaria:

“Ezinezkoa da ondo idaztea hutsik egin gabe”

Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasle gazte hau aditua dugu idazketa kontuetan. Horren erakusgarri, orain arte argitaratu dituen liburuak: *Describir el escribir. Reparar la escritura/Didáctica de la corrección de lo escrito. La cocina de la escritura*. Doktore-tesia ere gai beraren gainean egin zuen: *Intervencions en la comunicació escrita de les organitzacions*, eta laster izango du kalean tesi horretan oinarritutako liburu bat. Unibertsitatean hasi aurretik, Kataluniako Generalitateko Hizkuntz Politikako Zuzendaritzan aritu zen lanean; ongi asko ezagutzen ditu, beraz, hizkuntz plangintzaren barrunbeak. Azken urte hauetan, hainbat enpresa eta erakunde handitan eman ditu idazkera hobetzeko ikastaroak: *La Caixa, Banc de Sabadell, Bartzelonako Udala...* Oraingoan gurean izan dugu, eta aukera horretaz baliaturik, berari egindako elkarrizketa dakarkizuegu.

Zer deritzozu administrazioak erabiltzen duen hizkerari? Nire ustez, azken urteotan asko hobetu da, baina oraindik ere lan handia dugu eginkizun. Orain dela 20 urte baino hobeto gaude, zalantzarik gabe; hala ere, hemendik 20 urtera hobeto egon beharko dugu ezinbestez.

Lortu al daiteke testu juridikoak, administratiboak edo teknikoak herritarrek ulertzeko modukoak izatea? Bai, nik uste dut baietz. Hizkuntza gizakien asmakizuna da, geuk sortutako zerbait, jaiotzerakoan berez ez daukaguna. Alde horretatik, gure zerbitzurako dago, guri interesatzen zaiguna egiteko. Orain daukagun hizkuntza teknikoak beste denbora bateko kontua da, demokraziarik ez zegoen garaietako pertsonak beraien artean komunikatzeko asmatutakoa. Pertsona horiek ez zuten inolako asmorik, ezta interesik ere, herritar edo hiztun guztiekin komunikatzeko. Horren beharra ikusten dugunean, hau da, herritar guztiokin komunikatzeko moduko hizkera baten beharra ikusten dugunean, orduan bai, gai izango gara testu juridiko ulergarriak idazteko; eta berdin, idazki administratiboekin eta teknikoekin.

Esan dudan hori eskubide eta betebeharrak demokratikoa da, hizkuntza gizarte eraikitze modu bat baita. Hizkuntz antropologiak egindako hausnarketen arabera, hizkuntzarik izango ez bagenu ez ginatke gauza izango hiruzpalau lagunetik gorako talderik antolatzeke. Beraz, hizkuntza da gure gizarte antolaketa hezuramaitzen duena; eta garbi dago gizarte demokratiko batean herritarren eskubideak eta betebeharrak ziurtatzeko modu bakarra hizkuntza argia eta ulertteraza erabiltzea dela.

Ororen gainera, komunikazioa

Gaur egun behin eta berriz aipatzen da kalitatearen kontua komunikazioan; baina, zertan datza, zure ustez, kalitate hori?

Nik esango nuke “kalitatea” kontzeptu horren barruan gauza asko daudela, halakoa baita hizkuntza ere: anitza. Hizkuntza, lehenengo eta behin eta gauza guztien gainera, komunikatzeko tresna bat da. Era berean, kalitatea, komunikazioaren barruan behintzat, eraginkortasunarekin lotzen da, mezuak sortu eta ulertzerakoan. Hortaz, hona hemen garrantzitsuenak: mezua ulertzea; alegia, norbaitek zerbait esan nahi duenean gai izatea esan nahi duen hori esateko, eta, halaber, mezua jaso behar duenak pertsona horrek esan nahi diona ulertzea.

Baina hizkuntza beste gauza asko ere bada; esaterako, hizkuntz komunitate baten identifikaziorako tresna, kultur tradizioaren emaitza, eta, alde horretatik, badira kontuan hartzeko beste gauza batzuk. Horietako bat tradizioarekiko atxikimendua da (ohiturari eustea), eta hori dela-eta sor daitezkeen arazoak. Izan ere, alde batetik, tradizio hori daukagu, hizkuntz herentzia errespetatu beharra; baina, beste alde batetik, beste behar bat ere badago, hain zuzen ere, egunetik egunera aldatzen den mundu honi egokitu beharra. Bi indar handi horien arteko oreka gordetzea zaila da, eta are zailagoa hizkuntza gutxituentzat; hizkuntza handietako hiztunek, berriz, garrantzi gutxiago ematen diote horri.

Emango al zeniguke errejetaren bat testu on bat idazteko, kalitatezko idazki bat egiteko? Errejetarik errazena zentzuz jokatzea da. Kontuan izan behar dugu idaztea komunikatzeko modu bat dela. Gauza bera gerta-

Komunikatzaile
ona da
entzuleekiko
sentsibilitatea
erakusten duena

tzen da ahozko jardunarekin. Zein den komunikatzaile ona? Bada, entzuleekiko sentsibilitatea erakusten duena; hau da, nor duen aurrean beti dakiena, nori ari zaion hizketan, eta hitz egiten ari delarik, entzuleek nolako jarrera erakusten duten ikusten saiatzen dena.

Idazten dugunean ez daukagu irakurlea aurrean, baina saia gaitzke zentzuz jokatzeko eta pentsatzen nor den pertsona hori, zer jakin nahi duen, zenbat dakien, nola ulertuko gaituen; eta, azken batean, hitz egiten dugunean bezalaxe jokatu. Bi jardueren arteko aldea garrantzitsua da, noski. Garbi dago idazten dugunean landu egiten dugula esan beharrekoa, ez garela espontaneoak, eta zuzendu eta aldatu egin behar dugula idazten ari garena. Bestela gertatzen da ahoz ari garenean, huts egiten baldin badugu ez baitaukagu zuzentzeko aukerarik.

Musen mitoa

Pompeu Fabra Unibertsitatean "hizkuntz bitartekari" terminoa defendatzen duzue. Zer da zuentzat hizkuntz bitartekari bat?

Beste modu batera esanda, hizkuntz teknikari bat edo hizkuntz aholkulari bat. Azken finean, esaten duguna da hizkuntzaren garrantzia azpimarratzen duen gizarte moderno batean beharrezkoak direla langile espezializatu batzuk, sor daitezkeen hizkuntz beharrei erantzuteko. Behar horiek hainbat arrazoi direla-eta sortzen zaizkigu; adibidez, herritarrok hizkuntza ezberdinak ditugulako edota testuak idazteko behar diren trebetasun guztiak ez dauzkagulako. Jar dezagun adibide pare bat. Sarritan gertatzen da ekonomista batek arazoak dituela txosten bat egiteko orduan, idazketa teknikak ez dituelako ezagutzen, eta horrelakoetan, lagunduko dion profesionalen bat behar du; beste batzuetan, kazetari batek laguntza behar du gai teknikoek hitz egiteko; eta horrela, askotan. Hizkuntz bitartekariez hitz egiten dugunean, honako hauek ditugu buruan: itzultzaileak, erredaktoreak, zuzentzaileak, dokumentalistak, interpretariak... Hitz batean, hizkuntzarekin lan egiten duten guztiak, eta pertsonen arteko komunikazioa errazteaz arduratzen direnak.

Irakurle txarra idazle ona izatera iritsi daiteke, ala ezinezkoa da?

Begira, idazle ona izateko irakurle ona izan behar da, baina irakurle on bat ez da zertan idazle ona izan. Irakurtzea ezinbesteko baldintza da, baina ez bakarria. Eta horrek balio du ohiko erredakzioarako edo idazkera tekniko eta administratiborako, eta baita erredakzioa sortzailerako ere: literatura, nobela, poesia eta abar.

Cum ab Urbano PP. Romanum, S. PII V et denuo ipsius Urbani in lucem edat, sine licentia ac nisi prius ab eodem cum Cum autem nova prodierit et Benedicti Pape XV auctori

Idazle batzuek musak datozkienean idazten omen dute. Ba al dago musarik?

Nik uste dut musak pertsonen buruan daudela bakarrik. Musa hitzak edo kontzeptuak, nolabait esateko, beste ekintza bat eszenifikatzen edo mitifikatzen du: lan egitea. Idaztea lana da: ideiak aurkitu, landu eta antolatzea. Lan horri antolaketa edo musak dei diezaiokezu. Irudi erromantikoa da, beste irudi askoren antzera; esate baterako, beldurraren mamua, gaez etorri eta lo egiten uzten ez diguna.

Hutsak egitea ez da txarra

Beldurra aipatu duzunez, nola konbentzitu pertsona bat paper zuriaren aurrean izan dezakeen ikara hori gainditzeko?

Ba, besterik gabe, esango nioke ez duela zertan asmatu lehenengoan, hutsak egin ditzakeela, eta hutsak egitea ez dela txarra. Guztiok egiten ditugu hutsak, baina azkenean argitaratuta azaltzen den bertsioak okerrak zuzentzen ditu. Ikusi ahal izango bagenitu zuzen eta akatsik gabe argitaratu diren artikulua guztien atzean egon diren hutsak, harritu egingo ginatke.

Idaztea prozesu bat da behin eta berriz saiatzea,

hanka sartzea, hutsak zuzentzea eta idatzitakoa hobetzea eskatzen duena. Ezinezkoa da ondo idaztea hutsik egin gabe.

Idatzi al daiteke bigarren hizkuntza batean ama hizkuntzan bezain ondo?

Bigarren hizkuntza hori zenbateraino ezagutzen duzun, eta horren arabera, jakina. Bere ama hizkuntzan idatzi nahi duenak, hizkuntza ezagutzen duenez, kontzeptuen garapenari eman behar dio lehenetsuna. Bigarren hizkuntzan idazteak, ordea, prozesu bikoitza eskatzen du: alde batetik, hizkuntza hori, ideiak transmititzeko tresna den aldetik, ikasi eta lantzea; eta, beste alde batetik, konposizio estrategia batzuk garatzea. Kontuan izan behar dugu idazketaren zati handi bat kontzeptuen garapen horretan datzala, eta bigarren hizkuntza batean idazten duenak trebetasun hori aldeaz aurretik garaturik izan dezakeela bere ama hizkuntzan, eta beraz, bigarren hizkuntza horretan sakontzea baino ez zaiola geratzen. Hizkuntza hori zenbateraino jakin, oso ondo idaztera iritsi daiteke. Nik baditut lagun batzuk, interpretariak, eta frantsesez, ingelesez, katalanez, gaztelerez eta italieraz primeran egiten dute eta oso-oso ondo idazten dute bigarren, hirugarren zein laugarren hizkuntzan.

Teknologia berrien garapenak aldaketak ekarriko al ditu idazteko tekniketara; gauzak aldatzen ari ote dira?

Bai, nik uste dut oso azkar aldatzen ari direla. Oso interesgarria da irakurtzea, batez ere barre egiteko, orain dela hamar urte hizkuntzalari eta idazle ospetsu batzuek konputagailuei buruz esaten zutena: makinek idazketa deshumanizatuko zutela etab. Baina, gaur egun, hamar urte geroago, edozein erakundetara joan eta ez dago langile bat ere paper eta arkatzez edo idazmakinez idazten duenik, jende guztiak informatikaren laguntzaz egiten baitu lan. Informatikak idazketaren alde mekanikoa eta, beraz, gogorrena erraztu eta arindu egin du; horretarako dira, besteak beste, ortografi zuzentzaileak, idazteko laguntzaileak, estilistikako programak etab. Gaur egun ortografi arazoren bat baldin badugu, badakigu makinak lagunduko digula, nahiz eta geuk ere ezaguera asko izan behar dugun; nolana ere, makinak gauza bat ez digu inoiz esango: zer esan behar dugun eta nola; hori geuk egin beharko dugu beti.

Norvegiako samiak

Istoria oso ximplea da: maiatzean, elurra urtzen denean, tundra artikoa moskitoz betetzen da. Hamar hilabetetako negua lozorroan pasatu duten larbak esnatu egiten dira, milioika eta milioika, eta intsektu erraldoien zitzadak ekiditeko, elur-oreinen taldeak kostaldera abiatzen dira mantso-mantso, lautadak eta fiordoak zeharkatuz. Eta beraien atzetik herri oso bat mugitzen da, euren trasteak, etxeak, ohiturak eta bizitzak tri-neoen gainean arrastaka eramanez. Udazkenean, aldiz, animaliek eta gizakiek alderantzizko bidaia egiten dute: kostaldetik barnekaldera. Era horretan hizkuntza eta kultura exotikoa sortu dute kontinentearen iparralde hotzean; Europako azken nomadak, Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiako mugen gainetik: samiak.

Sami hizkuntzaren legea

Sami hizkuntzak 10 dialekto ditu, oso ezberdinak beraien artean (zenbait hizkuntzalarik 10 hizkuntzez osatutako talde linguistikoaz hitzegiten dute). Guztira 35.000 hiztun daude gutxi gorabehera, eta horietatik 30.000 inguruk ipar samia erabiltzen dute, Norvegian, Suedian eta Finlandian zehar. Lule samia 2.000 pertsonen erabiltzen dute Norvegia eta Suedian, eta gainerako dialektoak galtzeko zorian daude.

1990eko urrian, Norvegiako Legebiltzarrak zenbait aurrerapauso eman zituen sami hizkuntzaren erabilera ofiziala indartzeko asmotan. Neurri hauek Sami Hizkuntzaren Legea izenez ezagutzen dira.

1980an izandako krisialdi politikoan, Norvegiako Gobernuak bi ikerketa-batzorde eratu zituen samien kultur eta lege-egorak aztertzeko, eta etorkizunerako politika bat finkatzeko. Ara-

zoak Alta ibaiko zentral hidroelektrikoa eraikitzean sortu ziren. Urtegiaren aurkako protestak eta ekintzak oso handiak izan ziren, eta samien egoera kaxkarra ere agerian geratu zen. Ondorio gisa, 1984an Samien Legebiltzarra sortu zen, eta Norvegiako Konstituzioan eranskin hau gehitu zuten:

“Gobernuari dagokio behar diren pausoak hartzea Sami herriak bere hizkuntza, kultura eta gizartea babes eta gara ditzan”.

Samien Legebiltzarraren arazorik handienetakoa bere defizit demokratikoan datza. Hau da, Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartu nahi duenak bi baldintza bete behar ditu:

– Bere burua samitzat jotzea.

– Berak, guraso batek, aiton-amonek edo birraiton-birramonek samiz hitzegitea.

Gaur egun 7.500 pertsonen eman dute izena hauteskunde horietan botua emateko, baina samien eskualdeetan askoz ere jende gehiago bizi da.

Sami hizkuntza administrazio publikoan

Norvegiako Gobernuaren eta Samien Legebiltzarraren elkarlaren ondorioz, Hizkuntzaren Legea 1992ko martxoan jarri zen indarrean. Lege honen helburua Norvegiako samien hizkuntza eta kultura babestea da. Sami hizkuntza eta norvegiara baliokidetzat jotzen ditu legeak, eta honek nolabaiteko eskubi-deak ematen dizkie herritarrei, administrazio publikoekin harremanak sami hizkuntzaz izateko.

Gauzak honela, sami hizkuntza 4 herrialdeetan hitzegiten den arren (Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusia), bakarrik Norvegiako 6 udalerritan du ofizialtasuna, eta bertako administrazioan 500 funtzionariok lan egiten dute. Kasualitatez, lau hizkuntz eskakizun finkatu dituzte funtzionarioen hizkuntz trebetasunak neurtzeko.

Sei udal elebidun hauek Norvegiako iparraldean daude, Finnmark eta Troms eskualdeetan, eta bertan samia nagusi da. Populazioaren %80ak samiz hitzegiten du. Area honi sami hizkuntzaren zonalde administratiboa deritzo. Bertako administrazio publikoaren betebeharrak ezberdinak dira, hizkuntzari dagokionez, sami zonalde osoa barne hartzen duen ala ez kontutan hartuta. Zonalde honetan, toki-administrazioa behartuta dago samiz erantzutera, herritarren lehen harremana hizkuntza horretan izan baldin bada. Iragarki eta inprimaki ofizialak ere ele bietan izan behar dira. Justizi administrazioan ere, alde batek samia erabili nahi badu, norvegiarako itzulpena edo interpretazioa eska dezake epaileak, beharrezkoa balitz.

Hortaz, badirudi sami hizkuntzaren beherakada gelditu egin dela (Norwegian behintzat), eta bertakoen ahaleginez hizkuntza aurreindoeuropar honek bizirik iraungo duela, bai iparraldeko elur eternautan, bai interneteko ur arinetan.



Luis Elizondo


HAEeko teknikaria

Patxi Larrion

Larraungo euskara-teknikaria

Justiziaren oinarrizko gida kalean

Justiziaren oinarrizko gida elebiduna atera berri du Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak. Gidaren helburua da herritarrei Justizia Administrazioaren zereginak eta jarduerak hobeto ezagutzen laguntzea. Helburu hori lortu nahian, lanaren 10.000 ale argitaratu eta banatu dituzte dagoeneko.



Aldizkari honen 19. zenbakian (1998ko urtarrilari zegokion zenbakian, hain juxtu) Kaxildo Alkorta lagunaren gutun bat argitaratu genuen. Gutun horretan *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria hainbat galderari erantzuteko toki aproposa izan zitekeela irizten zion Kaxildok. Hona hemen, lekuko, berak egindako itaunak: nola dago antolatuta Justizia? Zenbat epaitegi eta auzitegi mota daude? Zein da bakoitzaren eginkizuna eta zein beren arteko lotura? Nola daude osatuta? Zalantza horiek argitzeko, hemen-txe daukazue *Justiziaren oinarrizko gida*.

Zortzi atal nagusitan banaturik

Zortzi atal nagusitan banaturik dago, bai, *Justiziaren oinarrizko gida*. Horietan lehena “*Nork hartzen du parte Justizia Administrazioan?*” izenburupean dator. Atal horretan, lehenengo eta behin, epaitegi-tako langilegoaren organigramaren berri ematen digute eskema bidez. Segidan, Justizia Administrazioan nor den nor azaltzen zaigu, bakoitzaren zeregina zein den zehazteaz batera: epaile edo magistratuak, epaimahaia, bake-epaileak, fiskalak, idazkari judizialak, ofizial, laguntzaile eta agenteak, abokatuak, prokuradoreak, auzitegi-tako medikuak, epaitegi-tako poliziak, perituak, talde teknikoak eta itzultzaileak, hurrenez hurren.

Atala amaitzeko, adibide praktikoak datoz (esan dezagun, bide-nabar, *eskema-azalpena-adibide praktikoak* egitura gainerako atal guztietan ere errepikatzen dela). Hauek dira, ausaz, argigarri-rirenak, eurei esker Justizia Administrazio-tako agente bakoitzaren

zeregina zein den argi samar geratzen baita. Hara bestela adibide bat:


- “*Zein kasutan aztertu beharko nau auzitegi-tako medikuak?*”
- *Borroka batean, atxiloketa batean, trafiko-istripu batean edota antzeko kasuetan lesioak jasan ditudanean, eta baita toxikoma-niek zerkusua duten kasuetan ere*”.

Epaiketa non, zelan eta zein motatakoak

Horiek dira gidaren hurrengo puntuak. Horren hurrenerari jarraitzeko, “*Zer judizio-mota daude?*” atalari helduko diogu aurrena. Atal horretan, funtsean lau epaiketa-mota daudela azaltzen digute lanaren egileek: epaiketa zibilak, penalak, Administrazio-arekiko auziak eta epaiketa laboralak, hain zuzen ere. Gai-nontzeko atal guztietan bezala, atal honen amaieran zenbait adibide praktikoekin osatzen dituzte azalpenok.

“*Nola egiten dira judizioak?*” izenekoa da hurrengo epigrafea. Nola epaiketa zibil, penal zein laboraletan hala Administrazio-arekiko auzietan baliatzen diren prozedurak jakinarazten zaizkigu bertan: izapidea zelan egiten den, demanda zer den, alderdiek frogekin zer egin behar duten, epaileak epaia noiz ematen duen, epaia-ekin ados ez bazaude zer egin dezakezun...

“*Non epaitzen da?*” titulupeko atalean, berriz, auzi bakoitza zein epaitegitan ebatzi behar den ikas dezakegu, eta baita epaitegi horietako bakoitzaren berezitasunak zein diren ikusi ere. Izan




ere, gidan irakur daitekeenez, eraikin judizialean ondorengo erakundeak eta organismo judizialak biltzen dira: bake epaitegiak, lehen auzialdiko epaitegiak, famili epaitegiak, instrukzio epaitegiak, penaleko epaitegiak, sozialeko epaitegiak, espetxeratuena zaintzarako epaitegiak, adin txikikoen epaitegiak, Probintzi Auzitegia, Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusia eta fiskaltza, hurrenez hurren.

Doako justizia, zinpekoen epaimahai eta helbide interesgarriak

“Doako justizia” atalean azaldutakoaren arabera, urteko beren famili sarrerak lanbidearteko gutxieneko soldata baino bi bider handiagoak jasotzen ez dituzten pertsonak doako justizia izateko eskubidea dute. Bada, atal honetan eskubide hori erabiltzeko zer egin behar den ikasteko modua dago.

Duela ez horrenbeste Hego Euskal Herrian dezenteko zalaparta sortu zuen gai bati eskainitakoa da hurrengo atala: zinpekoen epaimahaiari, alegia. Zinpeko epaimahaiaren eskumenak ez ditu hartzen Espainiako Kode Penalean aurrikusitako delitu guztiak. Aitzitik, dozena bat kasutara mugatzen du bere eragina. Honako hauetara, hain zuzen: erailketak, mehatxuak, laguntzeko beharra ez betetzea, etxea bortxatzea, baso-suteak, dokumentu-zaintzako desleialtasuna, funtzionario-eroskeria, influentzia-trafikoa, diru publikoaren bidegabeko erabilera, iruzurrak eta legez kontrako ordainarazpenak, funtzionarioek debekaturik dauzkaten negoziaketak, eta, azkenik, desleialtasuna presoena zaintzan. Nolanahi dela, zinpeko izatea edonori egoki dakiokela-eta, ondo baino hobeto datoz gidako azalpenak.

Gidaren azkenurreko atalak “Justizia Euskal Autonomi Erkidegoan” du izena, eta epaitegiekin zerikusia duten helbide inte-



resgarri askori buruzko informazioz beterik dago: atxilotuari laguntza emateko zerbitzuen helbideak, bake epaitegienak, justizia jauregienak, famili bitartekaritzarako zerbitzuenak, biktimari laguntzekoenak...

Oinarrizko hiztegia

Eguneroko bizimodu arruntean nahiko ezezagunak diren baina Justiziaren esparruan ohiko ditugun hitzen bilduma batek osatzen du gidaren azken atala. Oinarrizko hiztegi honek 104 berba eta kontzeptu biltzen ditu orotara. Esate baterako, berari esker

jakin dezakegu *munta txikiko judizioa* 800.000 pezetatik (32.000 libera) gorako eta 160.000.000 pezetatik (ia-ia sei milioi eta erdi libera) beherako erreklamazioak egitekoa dela.

Hiztegia euskara txukun eta zehatzean idatzita dago; gida osoa ere bai, oro har. Justizia Administrazioari buruz herritarrok daukagun ezagutza falta hori gaintzera dator lan hori, eta, gure ustez, tresna egokia izan daiteke erakunde ezezagun hori guztiongana gerturatzeko. Aurrerapauso bat, dagoeneko, emanda dago; bide horretan eman beharreko hurrengo urratsak Justizia Administrazioaren beraren euskalduntzea izan behar du. ■

Iñaki Sánchez Guiu, Eusko Jaurlaritzako Justizia sailbur uor de ohia:

“Justizia Administrazioaren funtzionamendua ulerterrazago bihurtu dugula iruditzen zaigu”

Zein arrazoik bultzatu zuen Justizia Saila gida hau prestatzera?

Arrazoi nagusia honako hau izan zen: Justizia, Zuzenbide Estatuaren funtsezko aginte eta zerbitzu publikoa izanda ere, herritar gehienei arrotz zitzaizela ikusten genuen. Hori horrela izanik, Justizia Administrazioa zer den azaltzea eta berau ulerterrazago bihurtzea ezinbestekoa zela iruditu zitzaigun; modu horretan, gainera, Justizia eta herritarrek elkarrengana hurbilduko genituela ere pentsatu genuen.

Hortaz, uste al duzu gida argitaratzeak balioko duela herri-atar arruntaren eta Justizia Administrazioaren arteko tartetabala murrizteko?

Tira, neurri txikian baino ez bada ere, lan horri esker Justizia Administrazioaren funtzionamendua ulerterrazago bihurtu dugula iruditzen zaigu.

Zeintzuk izan dira gida taxutzeko jarraitu dituzuen irizpide nagusiak? Itxura batean behintzat, badirudi garrantzitsuenetako bat argitasuna izan dela, grafiko, eskema eta adibide praktiko ugari, lekuko.

Edozein gauza eginda ere, garbi geneukan oso argia beharko zuela izan. Alegia, denek ulertu beharko zutelaren nortzuk diren administrazio horretan esku hartzen duten eragile guztiak, zein eginkizun betetzen duen eurentariko bakoitzak, zeintzuk diren prozedurarik ohikoenak... Era berean, oinarrizko hiztegi bat sartzea ere garrantzitsua zela iruditu zitzaigun.

Zenbat denbora eman duzue lan hau egiten?

Gida, funtsean, kanpaina askoz zabalago baten atal txiki bat besterik ez da. Urtebete daramagu dagoeneko kanpaina hori atontzen. Gidari berari dagokionez, gutxi gorabehera duela hilabete bi ekin genion prestatze lanari.



Eredu modura erabil zitekeen antzeko esperientziarik eza gutzen al zenuten?

Estatu espainiarrean –guk dakigula, bederen– ez da antzeko esperientziarik izan; tamaina honetakorik ez, behintzat.

10.000 ale kaleratu dituzue guztira. Zelan banatuko dituzue? Zer egin behar du ale bat eskuratu guran dabilenak?

Egia esan behar baldin badizut, gida atera eta oso denbora laburrean agortu zaizkigu ale guztiak. Gehien-gehienak (8.000 inguru) honela banatu ditugu: batetik, gida eskatuz idatzi digutenei ale bana bidali diegu; horretaz gain, hedabideetan iragarritako 902 116807 telefono zenbakira deitu dutenei ere helarazi diegu gida. Dena den, alerik gabe geratu denak jakin beza une honetan inprimategian bigarren argitaraldi bat prestatzen ari direla. Bigar-

ren tirada hori 3.000 alekoa izango da, eta eskuratu gura duen orok arestian aipatu dudana telefono zenbakira deitzea baino ez dauka.

Gida kanpaina zabalago batean txer-tatzen dela aipatu duzu lehen. Zeintzuk dira kanpaina horren gainerako ekintzak?

Horrela da, bai. Lehen esan dizudan bezala, gidaren argitalpena, funtsean, kanpaina askoz zabalago baten barruan sartzen da. Horrela, esate baterako, hila-bete honetan herritarrentzako informazio

bulegoak zabalduko ditugu Euskal Autonomi Erkidegoko hiru hiriburuetan. Horretaz gain, beste zenbait ekintza antolatu nahian gabiltza, esate baterako, eskola-umeentzako jardunaldiak eta abar.

Aitor Zuberogoitia

Kazetaria

Estatu
espainiarrean, guk
dakigula behintzat,
ez da antzeko
esperientziarik izan

HAREN / BERE / BERAREN

Aurreko alean pertsona-izenordainen erabilera aztertu genuen. Hala ere, **NOREN** kasuan deklinatutako pertsona-izenordainek zenbait berezitasun agertzen dituzte; izan ere, forma indartuak izateaz gain, balio *bihurkaria* ere badute. Horrexegatik, zenbait gramatikatan *genitibo bihurkariak* deitu izan zaie. Ikus dezagun zenbait adibide:

Ni NEURE autoan etorri naiz.
ZEURE apunteak ekarri dizkizut.
Jonek BERE autoa ekarri du.
Martak ez du BERE lana egin.

Adibideotan izenordain indartuek izenordain bihurkarien funtzioa betetzen dute, eta aurreko alean emandako arauak ez dira guztiz betetzen. Azken adibidean, esate baterako, ezezkoa izan arren ere, genitibo bihurkaria (**bere**) erabili dugu. Beste zenbaitetan, ordea, galdegaia izan arren, forma arruntak erabiltzen ditugu. Adibidez:

Azkenean NIRE autoa eraman du.
Azkenean NEURE autoa eraman dut.

Lehen adibidean, galdegaia izan arren, forma arrunta erabili dugu; bigarreanean, ostera, genitibo bihurkaria. Zertan bereizten dira adibideok? Bigarren adibidean, izenordainak adierazten duen pertsona aditzean aipatuta dago: autoa *nirea* da eta *nik neuk* eraman *dut*; lehen adibidean, ordea, ez da horrelakorik gertatzen: autoa *nirea* da, baina *beste batek* eraman *du*. Ezin da arau zehatzik eman, salbuespen bat baino gehiago baitago. Hala ere, orientagarri gisa, hona hemen kasu gehientsuetan betetzen den araua:

Izenordainak adierazten duen pertsona aditzean aipatuta agertzen denean, genitibo bihurkariak erabiliko dira.

Arau honek zenbait salbuespen badauzka ere, berau aplikatzen dugun guztietan, zuzen erabiltzen ari garelako ziurtasuna izango dugu. Hona hemen zenbait adibide:

ZEURE anaiari deitu dioZU?
ZURE anaiak deitu du.
GEURE etxean lo egin duGU.
GURE etxean lo egin dute.

haren / bere / beraren

Gainerakoetan ez bezala, 3. pertsonan hiru forma ditugu. Hona hemen eskema bat:

Arrunta:	haren	haien
Indartua:	beraren	beraien
Bihurkaria:	bere	euren

Forma hauen erabilerak zalantza eta oker asko sortzen ditu. Beraz, azter ditzagun banan-banan. Singularreko formei dago-kienez, **beraren** forma indartua **haren** erakusletik eratorritakoa

da, «**BER-**» aurrizkia aplikatuz, eta aldeztu aurretik aipatutako pertsona edo izaki bati erreferentzia egiteko erabiltzen da. **Bere**, aldiz, genitibo bihurkaria dugu eta goraxeago emandako arauari jarraikiz erabiltzen da. Ikus dezagun adibide bat:

a) **Ana BERE etxera joan da.** (Ana Anaren etxera joan da)
 b) **Ana HAREN etxera joan da.** (Ana beste baten etxera joan da)

Lehen adibideak balio bihurkaria dauka; izan ere, **bere**-k adierazten duen pertsona aditzean aipatuta dago (Anaren etxea da eta Ana bera joan da); horrexegatik erabili dugu genitibo bihurkaria. Bigarren adibidean, ordea, **haren**-ek adierazten duen pertsona ez da aditzean agertzen (etxea Mirenena da eta Ana joan da); hortik genitibo arrunta erabili izana. Hona hemen beste zenbait adibide:

Jon BERE autoan etorri DA.
Ni HAREN autoan etorri naiz.
Jon aurkitu dut eta BERAREKIN etorri naiz.
Marta BERE ahizparekin bizi da.
Ni HAREN ahizparekin bizi naiz.
Hori Marta da; BERAREKIN bizi naiz.

Adibideotan ikus daitekeenez, **beraren** forma aldeztu aurretik aipatutako pertsona edo izaki bat adierazteko erabili ohi da; gainerakoan, **haren** formaren antzeratsu erabiltzen da.

Pluraleko formekin ere beste hainbeste gertatzen da, eta hiru forma dauzkagu: **haien**, **beraien** eta **euren**. Euskalkien arabera, **euren** formaren ordeztu, **beren** eta **bere** erabiltzen dira. Halaber, zenbait lekutan, **euren** formaren ordeztu, **beraien** erabiltzeko joera dago, erabilera hau berri samarra bada ere. Ikus dezagun zenbait adibide:

Gurasoak EUREN (beren, bere) autoan etorri dira.
Gurasoak aurkitu ditugu eta BERAIEEN autoan etorri gara.
Umeak EUREN (beren, bere) gelan daude.
Lagun batzuk ikusi ditut eta BERAIEEN etxera joan naiz.

Genitibo bihurkaria balio bihurkaria duten beste zenbait esapidetan ere erabiltzen da. Adibidez: *bere burua*, *bere kontura*, *bere kasa*, *bere kabuz*...

Orain arte esandakoa gora-behera, mendebaldeko euskalkietan **bere** bietara erabil daiteke: genitibo indartu gisa (**beraren** formaren pareko) eta bihurkari gisa. Adibidez:

Kepa eta BERE aita etorri dira.
Koldo aurkitu dut eta BERE etxera joan naiz.

Ekialdeko euskaldunek, ordea, aurreko adibide bietan **haren** erabiliko lukete. Ez dirudi, beraz, gai honen gainean arau estuegirik eman daitekeenik.

Entzi Zubiri eta Ilari Zubiri
Euskal Gramatika Osoatik moldatua

Noiztik administrazioa euskaraz?

1933ko urriko "Argian" argitaratua



1. Euskaldunok ordaindu bear ditugu zerga edo kontribuzioak ez ditugu geok ezartzen. Bestek ezartzen dizkigu.

2. Baño gure diruz bizi diran enpliatuak zerbait galdetzea diyotegunean "no le entiendo" esanda uzten gaituzte.

3. Estatutua izaten degunean ordea, enpliatuak euskeraz dakitenak izango dira. Euskeraz itzegingo digute! ¡Gure euskera maitean mintzatu!

1978ko Espainiako Konstituzioan eta 1979ko Euskal Herriko Autonomi Estatutuan euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zenez, euskararen erabilpena administrazioan arautu duten legeak hainbat izan dira:

- 10/1982 *Oinarrizko Legea*. Hiritarrei administrazio autonomoekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea ematen die.
- 250/1986 *Dekretua*. Herri administrazioetan euskara, gaztelearekin batera, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izango dela dio. Horretarako, lanpostuetarako hizkuntz eskakizunak sortzen ditu.
- *Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea* eta *224/1989 Dekretua*. Lanpostuetako hizkuntz eskakizunak erregulatzen, hedatzen eta planifikatzen dituzte.

Beraz, euskararen erabilpena administrazioan xedatzen duen legeriak hogeitun urte eskas baino ez dituela esan dezakegu. Baina horrek ez du esan nahi aurreko garaietan administrazioan euskara erabiltzen ez zenik.

II. Errepublika garaian –1931ko apirilaren 1etik 1936ko uztailearen 18ra bitartean–, Bizkaiko toki administrazioak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta "Gaceta de Madrid" izeneko aldizkarian, baieztatu izan diren lanpostuak betetzeko 352 deialdi iragarri zituen. Horietako 127 deialditan, hau da %36,07an, administrazio kontratatzaileek lanpostuak betetzeko ezartzen zituzten baldintzen artean hizkuntz eskakizuna zegoen: 83 kasutan hautagaiei euskaraz jakitea eskatzen zitzaizkien, eta gainontzerako kasuetan euskaraz jakitea merezimendu gisa hartzen zen.

Deialdi guztien artean euskara eskakizun kopururik altuenak zituzten lanpostuak udal idazkariak, osasun zerbitzukoak (sendagileak, albaitariak, praktikanteak, e.a.) eta maistrak ziren. Hau da, euskara udalerriko biztanleekin harremanik estuenak zituzten lanpostuetarako eskatzen zuten.

Bestalde, soziolinguistikoki euskara hizkuntza nagusia zen udalerrietan, euskara eskakizunaren baldintza edozein motatako lanpostuetarako ezartzen zuten. Horietako zenbait udalerririk hizkuntz eskakizunak arautzen zituzten udal araudiak zeuzkaten. Ondarroan, adibidez, 1915eko Udal Enplegatuentzako Araudi baten bitartez, udaletxean lan egin nahi zuten guztiek euskaraz jakin beharra zuten.

Hortaz, ez da harrizkoa garai horretan ematen zen hizkuntz eskakizunen kokapen geografikoa: Bizkaiko Ekialdetik Mende-

balderako norabidean euskara eskakizuna desagertzen joaten zen eta hizkuntz eskakizun eza nagusitzen. Euskara eskakizun gehienak Markina-Ondarroako, Durangaldeko, Gernika-Bermeoko eta Plentzia-Mungiaiko udalerririk eskaintako lanpostuek jasotzen zituzten. Nahasketarik handiena Arratia-Nerbioi eskualdean eta Bilbo Handian ematen zen. Azken horretan, Ibaiaren esku-bialdean, Asuako Udalerriak eta Larrabetzuko barne, udal enplegatu euskaldunen premia zuten bitartean, ezker aldean, berriz, deialdi bakarren batzuetan eskatzen zuten. Enkartzatuetan, azkenik, hizkuntz eskakizun eza erabat nagusitzen zen eta bertako lanpostuetarako euskaraz jakitea eskatzen zuten udalerririk, Zallak eta Balmasedak, joera politikoa nazionalista zuten. Orokorrean, industrializazioaren eraginez hazitako udalerrietako lanpostuak, Udalbatzarren gehiengo ezkeriak eta hizkuntz eskakizun eza elkarrekin zihoazen.

II. Errepublika garaian Bizkaiko (eta Euskal Herriko) toki administrazioko langilegoaren euskararen ezagutzari buruzko legeriarik ez zegoela esan beharra dago. Udalerriek eta Diputazioak eskaintako lanpostuen hornikuntzarako egindako lehiaketak II. Errepublika aurreko legeriaren arabera arautzen ziren. Azkenean Euskal Herriko Autonomi Estatutuan gai horri aurre egiten zioten arren, Estatutua 1938ko urriaren arte ez zuten onartu, indarrean sartzeko aukerarik eman gabe.

José Antonio Rodríguez Ranz-ek eta Jon Unanue López-ek⁽¹⁾ beren lanean azaltzen duten bezala, gaur egungo egoera ez dago II. Errepublikakoarekin parekatzen. II. Errepublikan ez zen euskarari buruzko hizkuntz politikarik diseinatu, planifikatu eta arautu. Euskara ez zen hizkuntza ofiziala eta hiritarrek ez zuten administrazioarekiko harremana euskaraz egiteko eskubiderik.

Baina beharra zuten. Jasotako datuek horixe erakusten digute. Gaur egungo euskarari buruzko legeria euskaldunon eskubideetan eta nahian oinarritzen dela esan dezakegu; mende hasierakoa, berriz, beharrean. II. Errepublikan administrazioko lanpostuen hornikuntzarako euskara eskatzeak, batzuetan, sentimendu nazionalista baten isla iruditu arren, askotan, administrazioak hiritarren beharri emandako erantzuna zen. Administrazioa euskaraz ez bazen ere, euskara, nolabait, administrazioan zegoen.

Arantxa Setien
Irakaslea

⁽¹⁾ Hizkuntz politika, Autonomia eta Euskal Administrazioa. Hizkuntz eskakizunak Gipuzkoako toki Administrazioan II. Errepublikaren garaian. IVAP, 1994.

Baina, zer da euskal joskera?

Itxuraz ezin erantzun errazagoa behar luke. Euskal joskera da euskaldunok nagusiki erabili ohi dugun hura gure artean euskaraz komunikatzen jardun dugunean. Orain eta lehen. Ahoz zein idatziz. Eta horrek ez du esan nahi, nagusiak ez diren moldeak horregatik baztergarriak direnik. Hizkuntza *askotarikoa* da, eta horretan aberatsa.

Eta oso kontu argia den arren, badaezpada esan behar da, gure joskeraren definizio horretan ezin lezakeela zerikusirik izan, jakiteak, gero, joskera hori alboko hizkuntza baten edo bestearen –gaztelaniaren– antzekoa den, edo den zeharo bestelakoa. Ezta ere susmatzeak zer dioten gure gaurko edo atzoko joskera molde horien jatorriez hipotesi beti hipotetiko batzuek edo besteek. Ezin dira nahasi sagarrak eta krokodiloak. Halako gauzak sumatzea interesezkoa izango zaio filologoari. Erabiltzaileari, ordea, funtzionaltasuna inportako zaio, eta baliagarria zaion neurrian erabiliko du zerbait, eta hala ez duen neurrian, baztertuko. Beraz, pentsa liteke euskaldunok erabili ditugun egiturak, oro har, beren baliagarritasunagatik erabili ditugula, jatorriak jatorri.

Egitura hauek, gero, alboko hizkuntza baten –gaztelaniaren– paretsukoak gertatzen badira, izan liteke: a) Kanpoko beste hizkuntza batek eragin beretsua izan duelako bi hizkuntzaotan; b) Bietako batek eragin duelako bestean; edo c) Biek ere ezaugarri beretsuak garatu izana, hauek gizakion hizkuntz gaitasunen eremu unibertsaletan sartzen direlako.

Definizioetara itzuliz, euskal joskera, oso bereziki, ez da Azkue/Altubek mendeko honen hasieran asmatutako hura euskal tradizio guztiaren kontrara, nahiz intentzio onenarekin izan, eta ustez, euskarari mesede egiten ari zitzaielakoan. Eta ez da ere izango, ez J. Garziak, ez nik, eta ez beste inork aldarrika genezakeena euskaldunon betidaniko ahozko/idatzizko erabileraren kontrara doanean.

Eta zein da, bada, euskaldunon erabilera hori hitzen ordenari dagokionean? Lekukoak, hasiera batetik euskarazko dokumentuak: zaharrak, gehienik, idatziak (nahiz beti ahozkoaren oihartzunak ere aurkitu); ahozko zuzenagoak, berriz, soilik XIX. mendeko hondarretik aurrera. Guk baditugu eginak hauen azterketa eta estatistika xume batzuk, eta datuekin esan genezake nola, kurioski, hitz ordena oso beretsuak aurkitzen ditugun euskaraz –nornahik egin lezake frogatza–:

- a. XX. mendeko bitarteko ipar zein hegoko idazle guztietan (salbu, Kardaberazaren Eskola deitu dugun idazle –batez ere giputzean– sailtxo batean).
- b. Hasiera batetik ahozko hizkeraren oihartzun guztietan.
- c. Joan den mendetik jasoak ditugun ahozko testigantza –fidel– guztietan.

d. Gaur egungo ahozko hizkeran (jantzi, zein ez hain jantziatan).

e. Are mende honetan ere Azkue/Altuberen legeak tratatzen ez dituzten idatzietan (batez ere ipar, baina baita ere hegoaldean).

Eta denok susma genezakeen bezala, hitz ordena beti bereitsu honek zerikusit gutxi du Azkue/Altuberen lege nagusiekin:

1. Baiezko esaldi nagusietan, prediku nagusia (“galdegaia”-edo), oro har, aditzaren ondoretik ematen da nagusiki. Batez beste, esaldien %64,6 batean, 3 esalditik 2k betetzen ez duelarik, nabarmen, Azkue/Altuberen galdegai legerik. Esaldi luzeagoen artean, berriz, %18,1ek baino ez (5 esalditik batek ere ez). Azkenik, aditza esaldi barranean erakusten duten esaldien artean, soilik %10,8ak ematen du galdegaia aditz aurrean, eta %79ak, 0 ere bai nabarmen aditzaren ondoretik, Azkue/Altuberen aginduen kontrara. Zertan ari gara gu orduan?

2. Mendeko esaldietan, aditz-jokatu bidezkoetan –erlatiboak aparte–, soilik %46,7ak betetzen du Azkue/Altuberen preskripzioa aditza amaitzeko. %21,2ak baino ez, esaldi luzexekoetan.

3. Erlatiboak dagokienean, esan behar, batez beste %30,8 esaldi erlatibo ematen direla euskaraz, osorik edo atalen batean, beren izen-buruaren eskuinetik. %78,6a ere bai erlatibo luzexeko artean. Zenbaiten espanturako, kanonikoki izen-buruaren ezkerretik hasitako erlatiboaren artean, hauen %7,9a ere ematen da *hautsia*, artean konplementuren bat erakusten duelarik aditza, erlazio atzizkia (-*en*) eta beren izen-buruaren ondoretik ere. %42,5a ere bai luzexeko artean.

Noski, datu hauek guztiak patxadan irentsi beharrekoak dira eta banan bana aztertuak kasuistika osoan. Baina datuak hauek dira,

edo hauen urrutirik handirik gabekoak behintzat. Eta ez gure inolako espanturik behar, hau aldarrikatzeko **gure** joskera bezala. Ze, hori, ez da gaztelararen joskera, errealitatea nahasten duen haren buruan baino.

Zer gertatzen da orduan “gure gaurko estandarrean”? Gaur, eta hau ikaragarria da, **“gure” estandarrean idazten da beste inongo, inoizko eta inolako euskaldunek inoiz hitz egin edo idatzi ez duten bezala**, edota kontrara. Kanpoko edozeinek ez luke sinetsiko kontatuz gero. Beldurgarria. Batez ere, gaurko idazkerak, ulergarritasun/komunikatibotasun arazo larriak erakusten dituenen, gorago aipatu ditugun beste hizkera/idazkera mota horien guztien aldean. Larria.

Eta larriagoa, baldin badakigu, dakigun bezala, nondik-nora sortu dituzten Azkue/Altubek beren legeak (aipatu hiru nagusiak, esateko). Ezen ez, gure hizkera/idazkerak aztertzeak. Baizik eta, kontrara, horiek gaitzesten. Zergatik, eta, hiz-

Euskal joskera ez da Azkue/Altubek mendeko honen hasieran asmatutako hura euskal tradizio guztien kontrara


kera/idazkera horiek gaztelaniazkoen berdintsuak ote direla-koan. Eta guk onartu. Eta horien aurrean, ahozko hizkera aipatu, baina froga guzti bezala erakutsiaz, oro har, aditza eta konplementu bakarrez edo osatutako esaldien ordena. Horretatik erartortzeko, zeharo kontrako joserak erakusten dutela euskarak eta gaztelania. Eta guk xinixtu. Eta azkenik, euskal joserak “jatorra” zein den ezagutzeko, lan-modu bezala inposatu, gaztelanierikiko konparaketa (eta ez gure ohiko joserakikiko). Haren berdintsua bada, txar. Soilik haren kontrakoa on. Haren kontrakoa eta gure erabilera guztien kontrakoa. Eta guk men egin. Eta konparaketa horretan daramagu mende osoa hego honetan. Eta horixe segitzen dugu agi danean, ezer asko mugitu gabe.

Bitartean Azkue/Altubek asmatutako sistema anti-erderistak, kutsatua delakoan segitzen du gaitzesten gure erabilera onenaren zatirik nagusia. Eta ez digu uzten honen herentxo bat baino gure komunikazio beharrak asetzeko. Eta hori ez da serioa, ez fundamentuzkoa. Azken batez, zer inporta zaigu guri gaztelania ditxosozkoa? Bestela ere, ez al digu soziologikoki nahikoa kalte egiten, gramatika ere haren kontrara altxatu behar izateko, beraz haren baitara? Oxala Azkue/Altubek gaztelania gutxiago jakin izan balute! Nahikoa da. Begiraiogun lehendabizi geureari. Eta ez dezagun geurea mespreza! Inork estatistikaren batzuk egin beharko baditu ere.

“Askatasun gramatikala” gorabehera, euskarazko esaldien segidak ere komunikazioaren lege –ituraz unibertsal samarrek– gobernatzan dituzte. Komunikazio estrategiak. Ustez edo hitzez denok onartu uste ditugun **tema → errema** edo **mintzagai → galdegai** segidak, beti komunikazio argienaren mesedean –derrigorrik gabeak hauek ere–, mende honetan Pragako Eskolak ber-harrotutako hautsen ildotik. Guk, **esaldien egitura komunikatiboa** deitu dugun segida: **marko predikatiboa → predikazioaren** norabidea terminoetan. Denok nahikoa ados gauden kontu honetan ere, badira horregatik oharxto egin beharreko batzuk:

BATA: a) Soilik esaldi baten **testuinguruak (testuaurre** eta **testuondoak)** argi lezake esaldi baten elementuen funtzio tematikoa edo errematikoa, hauek dauden gunean daudelarik ere. Irakurle/entzuleak, dauden daudenean, beste gabe identifikatuko ditu elementu *ezagunak* eta *berriak* (tematiko eta errematikoa). Eta **b)** Soilik testuinguruarekin lotura zuzenik ez daukaten elementuen kasuan du garrantzia hauek esaldian erakusten duten segidak. Orduan irakurle/entzuleak beti jasoko ditu esaldiko lehenengo elementuak tematiko bezala, eta ondorengoak aurrekoen gaineko predikazio bezala (errema), eta hainbat eta errematikoa, gainera, zenbat eta beranduago agertu esaldian.

Horregatik ezin da, faltsua da, esaldi solteen gainean eztabaidatzea hauen egitura komunikatiboa, testuingururik gabe. Hain justu, ordena hori determinatzen duten parametroak ez ohi daudelako esaldi beraren barnean, baizik kanpoko testuinguruan. Eta hori da, besteak beste, J. Garziaren azken liburuari ere faltan egiten zaiona esaldien antolamendu orokorraz hitzegitean. Testuingururik gabeko esaldi solte bati, mila buelta emanda ere, ezin antzeman zaio ez buztanik eta ez bururik. Testuinguruan kokatua dagoen esaldiari, aldiz, ezin errazago. Aurrerantza, eztabaidatu nahi duenak, egin beza testuen gainean, testu errealean gainean, eta testu erreale hauen barrenean kokatutako esaldien gai-



nean, eta ez bestela, alferrean eramaten jarraitu nahi ez badugu guztion denbora eta nekea.

BESTE: Aditzaren guneari dagokio esaldian. Ze honek ere, beste zein-nahi elementuk ere ez bezala, ez dio ihes egiten informazio kateari. Eta gramatika tradizionalak, eta ere berriek, bestera pentsatzera bultzatzen bagintzate ere, paradoxa!, **euskal aditza**, beti horren ezaugarri morfologiko eta semantiko aberatsak dituen, eta hain zuzen horien kariatz, **esaldiko mintzagaia eraikitzen joan ohi da maizenik esaldi aurrealdean** –edota *transizio* lana egiten ere, esaldi aurrealde horretatik, mintzagai elementu eta predikazio nagusien artean– (nahiz inoiz aditza bera ere izan litekeen predikazioaren muin). Azken batean, ez da besterik gertatzen gure betiko idazle eredu garrien lanetan, edota gure ahozko mintzaira guztietan (inongo erdararen kutsaduren beharrik gabe). Joera horren kontra joatea, ez da gaztelanien kontra joatea, baizik eta, tamalez, euskararen.

Gure estandarrean idazten da beste inongo, inoizko eta inolako euskaldunek inoiz hitz egin edo idatzi ez duten bezala

Hitzun/idazleak ezinbestean eduki behar ditu kontuan elementu hauek bere testuak ahalik eta irengarrien bihurtzeko entzule/irakurleari. Errazago ulertzen da, beti, segida *komunikatiboa* antolatutako testua, alderantzizkoan antolatua baino. Nahiz, azkenean, ulertu, bi sistemetan ulertuko den berdin esaldiaren mezu “logikoa”. Egitura bat edo bestea erabiltzeak, soilik, arindu edo zaildu egingo du entzule/irakurleak mezu hori jasotzeko egin beharreko ahalegina. Zoritxarrez, gaur eguneko estandarren joserak legeen eraginez, oso maiz antolatzen dira esaldiak modu antikomunikatiboen, eta horrek zailtzen ditu bereziki testuak gure klasikoaren edo ahozko hizkeren aldean.

Horregatik guztiatik iruditu zaizkigu hasieratik horren pertinenteak P. Esnaiek eta J. R. Zubimendik joserak egiten dituzten oharrek 1993ko *Idazkera-liburuan*, nahiz denok ere abiapuntu desberdinetatik abiatu, ondorio beretsu batzuk iristeko. Zeinen artean 3 joserak gomendio bederen:

- a) Aditza aurreratu.
- b) Esaldiaren pisua atzeratu.
- c) Etenik ez eragin –edo ahalik eta eten txikiak eragin– esaldian eta esaldi artean funtzioz edo esan-nahiz elkarrekin erlazionatutako elementuen artean.

Bego horretan.

Bittor Hidalgo

Oharra: ikerketa honen gainean erreferentzia gehiago nahi baduzu, ondorengoetara jo dezakezu: *HIZPIDE* (1996) eta *Fontes Linguae Vasconum* (1995, 1996).

Hauteskundeei begira, zein da zur alderdiaren programa, euskarak administrazioan izan behar duen tokiari dagokionez?



Javier Madrazo
IU/EBko koordinatzaile nagusia

IU/EBk uste du euskara Euskal Herriaren ondarea dela, eta, era berean, gizartearen kohesio elementua. Horregatik, defendatu eta garatu egin behar dugu botere publikoen partehartzearen bitartez; hori guztia, hiritar guztiak hizkuntz adierazpenaren eremu propio guztietan euskara erabiltzeko eta euskaraz komunikatzeko duten eskubidea bermatzeko. EAEn euskararen normalizazioa lortzeko programak garatzea proposatzen du IU/EBk, beti ere, herriaren errealitate soziolinguistikoak merezi duen errespetu gorenaz. Uste dugu garatu beharreko politikek honako helburuok izan behar dituztela:

- Euskara hiztunen kopurua nabarmen handitzea.
- Hiztun horien hizkuntz konpetentzia hobetzea.
- Euskararen funtzio eta erabilera eremuak zabaltzea.
- Euskara euskal herritar guztien ondarea delako iritzia indartzea, norberaren ideologia politikoa alde batera utziz.

Hezkuntzari dagokionez, egungo hezkuntz sistema mantendu nahi dugu, A ereduan euskararen presentzia indartuz. Era berean, arreta berezia eskainiko diogu irakasleen prestakuntzari. Hezkuntza unibertsitarioan apostu sendoa egin nahi dugu unibertsitate elebidunaren alde.

Oraingo lurralde inguruneak bultzatu, eta berriak sortu nahi ditugu. Horietan, administrazioak, bai barne funtzionamenduan bai herritarren aurrean, euskara izango du lehentasuneko komunikazio tresna. Jarrera hori bideragarria da euskal hiztunen kopurua handia den herrietan, eta baita horrela funtzionatzeko borondatea adierazten dutenetan ere.



Joseba Egibar
Euzko Alderdi Jeltzaleko bozeramalea

"Itxurazko ofizialtasunetik benetako ofizialtasunera" esaldiarekin laburbildu dezakegu Euzko Alderdi Jeltzaleak administrazioan euskararen normalkuntzaren inguruan duen irizpide nagusia. Orain arte euskal administrazioak, nagusiki, hizkuntzaren ezagupena indartzen jardun badu ere, helburuak lortzen joan diren heinean, baliabide horiei behar den etekina ateratzea bilakatu da lehentasun nagusia. Beraz, erabilera indartzea izango da zalantzarik gabe gure helbururik garrantzitsuena datorren legegintzaldian.

Gure alderdiak markatzen dituen lehentasunak zehazteko unean ezin ahanzi 1996an onartutako *EAEko Administrazioetan Euskararen Erabilera Normaltzeko Plangintzaren* bigarren zatia. Plangintzaren ezaugarri nagusia erabileraren indartzean datza, horretarako administrazio bakoitzak bere plangintza propioa onartzeko eta burutzeko irizpidea ezartzen delarik. Bistan da gure alderdiak plan horiek sustatu eta bultzatu egingo dituela, berari dagozkion esparruetan. Hori izango da gure lehentasun nagusia.

Lan hori burutzeko orduan ezin ditugu alde batera utzi orain arte egin diren esperientzia pilotoak, eta horietatik atera diren irakaspenak. Ildo horretan, *AEBE* egitasmoa aipa dezakegu, berau egokia ikusten baitugu, administrazioetan euskararen erabilpena normaltzeko. Irakaspeni gagozkioz, helburu zehatz eta lorgarriak finkatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, adostasuna bultzatuz inposaketa mota guztien gainetik.

Leopoldo Barreda
Partidu Popularraren
Eusko Legebiltzarreko
bozeramalea



Partidu Popularrak uste du bereiztu egin behar direla, alde batetik, herri-erakundeetako funtzionarioak, eta, bestetik, Autonomi Erkidegokoak. Guk autonomia handiagoa eskatzen dugu udal eta diputazioentzat, bai hizkuntz eskakizunak ezartzeko orduan bai normalizazio prozesuari begira. Funtsezkoa da lurralde historiko bakoitzeko egoera soziolinguistikoa bereiztea, eta baita lurralde bakoitzaren barruko eskualdeena ere.

Funtzio publikoak izan behar du euskal hiztunen eskubideak bermatzearen ardura, eta ez funtzionario bakoitzak. Horregatik, zero hizkuntz eskakizuna duten funtzionarioei lanpostua mantentzea defendatzen dugu. Hori dela-eta, gure hauteskunde programako arau nagusia honako hau izango da: errespetatzea funtzionario bakoitzak funtzio publikora sartzeko bete dituen baldintzak.

Azkenik, PPK bere programan proposatzen du Funtzio Publikoari buruzko Legean aurrikusitako euskalduntzeari buruzko irizpideak berrikustea. Hezkuntzako funtzionarioei dagokionez, hezkuntzako euskalduntze politika osoaren berrikusketa orokorra planteatzen dugu, eta baita eskola maparena ere, gure ustez, horixe baita hezkuntzan hizkuntz politikak dituen akats nagusien iturria.

Antón Sáenz de Santa María

Unidad Alavesako idazkariorde nagusia

Euskararen eta gazteleraren koofizialtasunak administrazio publikoak beharrezko bitartekoak jartzera, herri-tarrak administrazioarekiko harremanetan hizkuntza bietako edozeinetan egin ahal izan dezan. Komeni da, ordea, zehaztutako batzuk egitea.

Lehenengo eta behin, beharrezkoa da hiztunen gutxienezko portzentaia batzuk finkatzea, Gutxienezko Ofizialtasun Koeffiziente (GOK) deitzen duguna. Esate baterako, Arabar Errioxako udaletxe batean bi edo hiru euskaldun bizi badira –herri-tarren % 1 inguru direla demagun– horrek ezin du ekarri, berez eta besterik gabe, administrazioa derrigortuta egotea beraiekiko harremanak euskaraz izatera, nahiz eta lurralde horretan ere euskara koofiziala izan. Guretzat, GOK portzentaia horrek % 15ekoa izan behar du hizkuntza gutxituari dagokionez, Europako zenbait herrialde elebidunen adibideak aintzat hartuz.



Ez dugu onartzen administrazioa gizartearen euskalduntzearen bide-urratzailea izatea, administrazioak neutraltasunari eutsi behar baitio eta ez baita onargarria administrazioaren hizkuntz politika erabiltzea gizartearen euskalduntzeko, eta, are gutxiago, inguruko hizkuntza edo erabilera sozialeko hizkuntza aldatzeko.

EAEko administrazio publikoaren hizkuntz politikak ez die erantzuten ez gizartearen eskaerei ez errealitate soziolinguistikoari. Bakarrik erantzuten die bereizkeriari eta lanpostu publikoak eskuratzeko irizpide abertzaleei; eta horrela administrazioa urrundu egiten da hiritarrengandik, eta gehiengoaren etsai bihurtzen da.

Anjel Mari Elkano

Herri Batasunako euskara burua



Herri Batasunak urriko hauteskundeetan ondoen Euskararen Plangintza Orokorra finkatzeko apostua egingo du. Administrazioa plangintza orokorraren gizarte-sail bat dela kontuan, euskararen erabilera plana zehaztu beharko litzateke berau euskalduntzeko. Beraz, hona hemen Herri Batasunak administrazioaren euskararen erabilpena ziurtatzeko proposatzen dituen bederatzi neurri berriak:

- 1- Politikaren euskalduntzea. Hautagaien euskalduntasuna eta euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartu.
- 2- Euskararen udal ordenantzak sortzea eta aplikatzea.
- 3- Hizkuntz eskakizunen plana eta langile berriak. Herri Batasunak A, B eta C kategorietako lanpostuetarako deialdietan euskararen ezagutza derrigorrezkoa izatea eskatuko du, eta gainerako kasu guztietan (mantenimendu, eskulan, eta abarrekoak), merezimendu gisa hartzea.
- 4- Euskararen erabilera plana administrazio bakoitzean.
- 5- Erabilera jasotzen duten "Euskararen Plan Orokorrak". HBrentzat euskalduntze prozesuaren helburua ez da administrazioa euskalduntzea soilik, herria euskalduntzea baizik.
- 6- Euskara teknikari edota euskara zerbitzuen osaketa.
- 7- Finantzamendu planaren inguruko proposamena. Orientabide modura, kopuruak ez luke administrazioaren aurrekontuaren % 1,5aren azpitik izan behar.
- 8- Euskararen aholku kontseiluen sorrera administrazio bakoitzean.
- 9- Euskalduntze prozesuaren hobekuntzarako akordioa.

Eneko Oregi

Eusko Alkartasunako Euskarazko Batzordeburua



EAEko herri administrazioetan euskarazko normaltzeko bigarren plangintzaldiaren erdian gaude eta hainbat herri-langilek egiaztatu du honez gero hizkuntz eskakizuna, eta iritsi da administrazioetan langile euskaldun portzazio dezente bat.

Hala eta guztiz ere, ez dira oraindik abian jarri plangintzaldi honetarako EAK bultzatu zituen zenbait puntu:

- Erabilera-planak administrazio ataletan.
- Atal elebidunen eta euskarazko atalen funtzionamendua.
- Euskararen erabilera arauak (dekretuak, aginduak, foru-aginduak, udal ordenantzak, e.a.).
- Indarrean dauden lau hizkuntz eskakizunak berrikustea: 1 HEak ba ote du nahikotasunik?
- Ez atzera ez aurrera dagoen langile poltsa gero eta handiagoari irtenbidea ematea.
- Sindikatuekin elkarriketa eta adostasuna.

Bestalde, bigarren plangintzaldiko dekretua berrikusi beharko litzateke. Esate baterako, irakaskuntzako ez-irakasleen kasuan, garbi dago beraientzat ez direla egokiak, ez Administrazio Orokorrean dagokien HE, ezta derrigortasun-indizea ere, ikaste-txeetan helburu den euskalduntze maila kontuan hartuta, behintzat. Azkenik, EAK uste du bultzada politiko sendoa behar duela euskararen normaltzeko, eta herri administrazioetakoak bereziki.

Oharra: galdera Legebiltzarreko alderdi guztiei egin zaie; PSE-PSOEK, ordea, ez du erantzun.

Herriko eta herritar ren bizi-kalitatea hobetzeko zerbitzuak sortzen ditugu



Kudeaketa hitza administrazio-erakundeen hiztegian sartu da. Gaur egun badakigu administrazioak kudeatu egiten duela: ez duela administratzen. Hau da, gauzak lan-taldeen bidez egiten dira; baliabide gutxirekin kalitatezko zerbitzuak eskaini behar zaizkio lehen baino herritar gehiagori.

Gaur egun, *produkzio* hitza ere gero eta gehiago erabiltzen da administrazio-erakundeen artean. Izan ere, gure lanaren zati handi bat herritarrentzat zerbitzuak produzitzea, eraikitzea eta fabrikatzea da, eta zerbitzu horiek erabiltzeko erraztasunak ematea.

Produkzio hitza hitz zabala da, eta laneko hainbat elementu, prozesu, katea eta abar hartzen ditu barne; elementu horiek bata bestearekin lotu behar dira, eta elkarri eragiten diotelarik jarri. Hori da zerbitzu bat sortzeko modu bakarra.

Hitz batean, *produkzio* hitza *lan-metodo* hitzaren sinonimoa da zerbitzuen alorrean, eta horretan eragina du zerbitzu publikoen marketinak; izan ere, marketina oraindik apala bada ere, gero eta maizago erabiltzen da, eta horren bidez *produkzioa* administrazio-erakundeetako eguneroko lan-tresna bihurtzen ari da, eta lana egiteko modu arrazionala, sortzailea eta ebaluagarria ematen die lan-taldee.

Horrela, bada, zerbitzu-ekoizleak gara, zerbitzu publikoen sortzaileak, herritarrentzako zerbitzuen fabrikatzaileak. Hori dena gara. Eta hori da, hain zuzen, gaur egun administrazio-erakundeetako langile gisa bereizten gaituena.

Baina, zer da zerbitzua?

Zerbitzua herritarren premia bat da, eta premia horrek lehentasuna izan behar du beti zerbitzu publikoak erabakitzeke

orduan. Garbi dago, beraz, zein den administrazioaren eginkizuna: erantzuna edo irtenbidea ematea beharriari. Baina, aurrera baino lehen, argitu ditzagun zenbait kontzeptu. **Beharra:** herritarren talde homogeen baten iritziz zerbaitek huts egiten du, eta bizi-kalitatea mantentzeko –edo eguneroko bizitzarako komeni zaizkion– *zerbait* hori hobetu egin nahi dute. **Erantzuna:** lan-talde batek egiten duen irtenbide-proposamena. **Zerbitzua:** harreman-unea, beharra duten herritarren eta administrazio-erakundearen arteko, irtenbidea herritarren beharriari egokitzeko. Zerbitzua emateko, eta kalitate onekoa izateko, beharrezkoa da ezinbesteko urrats batzuei jarraitzea, metodo bat erabiltzea alegia.

Behar edo publiko objektiboa

Lehenengo urratsa da. Zerbitzuko lan-taldeak herritarren beharra zein den ondo jakin behar du. Topikorik gabe, abstrakzio-rik egin gabe, idealizazio-rik gabe. Hortaz, zehaztasun osoz. Lan-taldeak, berea balitz bezala sentitu behar du beharra. Horregatik, zehatu egin behar da beharra duten herritarren kopurua, herritar horien bizimodua, herritar guztiek behar bera duten...

Beharra zehatz-mehatz ezagutzeak hau eskatzen du: zerbitzuko lan-taldeak erakundeaz kanpo lan egitea, hau da, herritarren ikuspuntutik lan egitea. Beraz, lan-taldeari eskatzen zaion lehenengo gauza profesionala izatea da, herritarren beharrak ezagutzea eta ulertzea, eta zenbaterainokoak diren mugatzea. Beharrak puztu edo murriztu gabe.

Erantzun edo ideia erabilgarria

Gero, beharra kontuan hartuta –eta inoiz ez hutsetik abiatuta– erantzuna bilatu behar da: ideia erabilgarria sortu behar da, hau da, irtenbidea aurkitzeko urratsak finkatzen lagunduko duen ideia. *Idea* terminoa azpimarratu behar da. Zerbitzua ez da sekula dirua edo teknika, ideia da beti: ildo da, labur esanda, behararen hutsunea erantzun-proposamenaz betetzeko. Ideia hori –eskaintzen dena– gutxienez hamar-hamabost hitzetan adierazi behar da, publiko objektiboaren hizkeran idatzita, hau da, hitz ulerterraz eta erabilgarrietan; hartara, zerbitzuak zer eskaintzen dion jakinda, herritarrek zerbitzua erabiltzera joko du, bai baitaki zerbitzua berarentzat dela.

Zerbitzuaren egitura edo zerbitzu-paketea

Beharra eta ideia erabilgarria. Kanpoa eta barrua. Zailtasunak eta irtenbide-aukerak. Dena lotu egin behar da orain. Ideia erabilgarria publiko objektiboaren esku jarri behar da. Zerbitzua egituratzeko eta zerbitzu-pakete bihurtzeko unea da. **Paketea:** zerbitzua beti zerbitzu-multzo bat da. Zerbitzu onak direnean, beti badago zerbitzu nagusi bat, behararen erantzun zuzena.

Administrazioaren
 berrikuntzak
 berarekin dakar
 hainbat lege
 zakarretara botatzea,
 hala nola: Funtzio
 Publikoari buruzko
 Legea

Eta, horretaz gain, zerbitzu-multzo lagungarria, txikia nahiz handixeagoa. Zerbitzu lagungarri horiek zerikusia dute bata bestearekin, baita zerbitzu nagusiarekin ere; eta, horiek denak lotuz, behar bati dagokion erantzun pertsonalizatua ematea errazten dute, eta hartara beharrari oso irtenbide erabilgarria ematen diote. Adibidez: museo bateko zerbitzu-paketeko zerbitzu nagusia pintura-bilduma da; zerbitzu lagungarriak, berriz, aldi baterako erakusketak, katalogoa, jatetxea, denda...

Baliabideak edo zerbitzuaren ahalmenak

Lan-taldeak badaki dagoeneko herritarren beharrari nola egin aurre. Orain, *nola* hori abian jarri behar da, hainbat alderdi kontuan hartuta: ekonomia, langileak, ekipamendu-azpiegiturak eta azpiegitura teknikoak, informazioa (egin behar dena ondo egiteko), bete beharreko legeak, eta zerbitzu osoa edo zerbitzu-paketeko zerbitzu lagungarriaren bat beste administrazio-, elkarre- edo enpresa-erakunde batekin kudeatzea. Horretaz gain, prozesua martxan jartzeko, antolamendu-sistemak eta kudeaketa-kontrolerako proposamen-sistemak eratu behar dira, prezioak eta emaitzak finkatu...

Komunikazioa edo motibazioa

Beharra zein den jakinda eta ideia erabilgarria sortuta, badugu zerbitzu-paketeko zerbitzu erabilgarria. Orain, komunikatzea besterik ez da falta, hau da, publiko objektiboari jakinaraztea zerbitzua erabiltzen badu, bere beharrari irtenbide egokia aurkituko diola. Komunikatzeko unea da. Zer da, bada, komunikatzea, zerbitzuen alorrean?

Itxuraz, oso gauza erraza: publiko objektiboari –komentitzeko asmotan– ideia erabilgarriaren berri ematea, eta ideia hori beteko dela hitz ematea. Argiago esanda: “zerbitzua erabiltzen baduzu, zure beharrei irtenbidea aurkituko diezu!” Biribil-biribila. Komunikazioa publiko objektiboaren hizkeran egin behar da, komentitzeko eta motibatzena kutsuarekin beti ere: hitz gutxi baina argiak eta eragingarriak, gogoan erraz geratzen diren irudiak... Publikoak erabili ohi dituen informazio-bideak erabili behar dira komunikazioan.

Zerbitzua gauzatzeko unea

Komunikazioak eraginda, publiko objektiboaren talde batek zerbitzua erabiltzen du: zerbitzuan dago. Eta hau topatzen du (zirkulua itxi egiten da hemen): administrazio-zerbitzua sortu duen lan-taldeak zerbitzua publiko orokorarentzat sortu duela baina orain, zerbitzua erabiltzeko unean, erabiltzaile bakoitzaren edo erabiltzaile-talde bakoitzaren ezaugarrien arabera zerbitzua egokitu egiten duela. Zerbitzuak agindutakoa lortu duten herritarrek kalitate onkotzat joko dute zerbitzua: ondo. Beharrari irtenbidea aurkitzen ez diotenek, berriz, txartzat joko dute; ondorioz, kexatu egingo dira, eta hori egiteko arrazoi izango dute. Emaitza ona lortu dutenentzat, euren eta herriaren bizi-kaliterako ardatz bihurtuko da zerbitzua, eta uste osoa izango dute zerbitzua ematen duen administrazio-erakundearengan.

Kalitatea, edo etengabeko hobekuntza

Kalitatea ere hiztegi publikoko beste hitz bat da, *produktzio* hitza bezala. Zer esan nahi du? Erraza da: akatsik gabe egitea zerbitzu baten produktzio-prozesuak eskatzen duen guztia. Beraz, ezin hobe egitea. Zerbitzuan behar bezain ongi funtzionatzen ez duten alderdiak etengabe hobetzea. Oso ondo funtzionatzen duten alderdiak ere hobetzea. Izan ere, zerbitzua beti hobetu daiteke: beti izan daiteke kalitate hobekoa.

Zerbitzu-ekoizleak gara, zioen testuaren hasieran. Orain, zerbitzuaren azken unean, produktzioaren –produktzio hitzaren– nondik norakoa garbiagoa da: urratsez urrats, produktzio-prozesuak lan-taldeari zein pausu eta zein ordenatan jarraitu behar dituen adierazten dio. Azken finean, zerbitzuko taldeok beti egiten ditugun lanak; baina ez beti dagokien ordenan. Eta hemen bai, faktoreen ordenak eragina du zerbitzuaren kalitatean. Bestela, abiadaren abiadaz, pausu batzuk azkarregi egiten ditugu, eta horrek zerbitzuetan inoiz ez du ondorio onik.

Produktzio-taldea

Produktzio-prozesu hori guztia segitzea ez da erraza administrazio-erakundeetan: lehenik eta behin, modernizazio-prozesuan urte asko eman arren, oraindik ere administrazioak ez direlako zerbitzu-erakunde publiko. Nik, gaur egun, ez dut modernizazioaren alde egiten: administrazioaren berrikuntzaren alde egiten dut. Berrikuntza horrek berarekin dakar hainbat lege zakarretara botatzea, hala nola: Funtzio Publikoari buruzko Legea, langile publikoak mailetan sailkatzen baititu; edo Estatuari, autonomiei edo udalei dagokiena arautzen duten lege zurrinak, izan ere horiek ez dira batere egokiak gaur egungo behar eta zerbitzu-eskaerei aurre egiteko. Eta bigarrenik, zerbitzuetako taldeen alde egiten dut: langile gogotsuak behar dira, emaitzak lortu nahi dituztenak, arduratsuak eta erabakitze ahalmena dutenak, malguak, beste erakundeekin lan egiten dutenak eta zerbitzuen produktzio-prozesuan herritarrek ere sartzen dituzten langileak... Beraz, nire jarrera –beste askorena bezala– administrazio-erakundeetan elementu garrantzitsuenak herritarrek eta lan-taldeak izatearen aldekoa da.

Zerbitzu publikoak sortzen ditugu. Eta gero eta hobeak sortu nahi ditugu lan-taldeen bidez, hau da, zerbitzu-produktzioaren metodoa erabiliz, herritarren eta herriko bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten duten lan-taldeen bidez.

Gehiago jakin nahi dutenek –nik dakidan ia guztia– nire *Manual para la producción de servicios municipales* libururara jo dezakete. Eskuliburua 1998. urtean argitaratu du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE/IVAP). Zorte ona izan zuen ahaleginean.

Toni Puig
Bartzelonako Udala

Langile gogotsuak
behar dira,
erabakitze ahalmena
dutenak, malguak, eta
beste erakundeekin
lan egiten dutenak

Azken denbora honetan irakurle ugari jarri dira gurekin harremanetan, administrazio gaiak jorratzen dituzten aldizkari berezietuei buruzko informazioa eskatzeko. Beraiei erantzun nahian, hona hemen, aldizkari horietako batzuk eta euren helbideak:

• **Actualidad Administrativa**

(Astekaria)
La Ley-actualidad, S.A.
Collado Mediano, 9
28230 Las Rozas (Madrid)
Tel.: 91 602 00 00
Faxa: 91 602 00 01
<http://www.laley-actualidad.es>

• **Administración de Andalucía**

Revista Andaluza de Administración Pública
(Hiruhilabetekaria)
Servicio de Publicaciones y BOJA
Apartado Oficial sucursal nº 11, Bellavista
41014 Sevilla
Tel.: 95 469 31 60

• **Administrative Science Quarterly**

(Hiruhilabetekaria)
Cornell University
20 Thornwood Dr., Suite 100
Ithaca, NY 14850-1265

• **Autonomies**

Revista Catalana de Derecho Público

(Seihilabetekaria/katalanez eta gazteleraz)
Escola d'Administració Pública de Catalunya
Av. de Pearson, 28
08034 Barcelona
Tel.: 93 402 40 17
Faxa: 93 402 40 05
E-mail: peap0022@correu.gencat.es

• **Boletín de Administración e Lingua**

(irregularra)
Escola Galega de Administración Pública
Polígono das Fontiñas, s/n
15707 Santiago
Tel.: 981 57 08 00
Faxa: 981 57 15 40

• **Civitas Revista Española de Derecho Administrativo**

(Hiruhilabetekaria)
Editorial Civitas, S.A.
Ignacio Ellacuría, 3
28017 Madrid

• **Diritto Amministrativo**

(Hiruhilabetekaria)
Giuffrè Editore S. p.A.
via Busto Arsizio, 40
20151 Milano
Tel.: 38 089 324
Faxa: 38 089 426

• **Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica**

(Lauhilabetekaria)
Ministerio de Administraciones Públicas
Instituto Nacional de Administración Pública
Atocha, 106
28012 Madrid

• **Public Law**

Sweet & Maxwell
(Lauhilabetekaria)
University College London
Bentham House/Endsleigh Gardens
London WC1H 0EG
Tel./Faxa: 0171 391 1410

• **Revista Aragonesa de Administración Pública**

(Seihilabetekaria)
Instituto Aragonés de Administración Pública
Comunidad Autónoma de Aragón
Paseo María Agustín, 36
50004 Zaragoza

• **Revista de Administración Pública**

(Lauhilabetekaria)
Centro de Estudios Políticos y Constitucionales
Harpidetza:
Fuencarral 45, 6ª
28004 Madrid
Tel.: 91 532 50 69/91 532 55 91

• **Revue française de droit administratif**

(Urtekaria)
Daloz-Sirey, 31-35, rue Froidevaux
75685 Paris Cedex 14
Tel.: 01 40 64 53 53

• **Revista Vasca de Administración Pública**

Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria
(Lauhilabetekaria)
HAEE-IVAP, Oñati
Unibertsitateko hiribidea, z/g
20560 Oñati
Tel.: 943 78 20 00/943 78 20 11
Faxa: 943 78 31 77

• **Revue Française D'Administration Publique**

(Hiruhilabetekaria)
l'Institut International D'Administration Publique (IIAP)
Harpidetza:
LA DOCUMENTATION FRANÇAISE
29-31, quai Voltaire - 75340 Paris Cedex 07
124, rue Hernri-Barbusse
93308 Aubervilliers Cedex
Faxa: 01 48 39 56 01

• **REGAP: Revista Galega de Administración Pública**

(Lauhilabetekaria)
Escola Galega de Administración Pública
Rúa de Madrid, 2-4. Polígono das Fontiñas
15707 Santiago de Compostela
Tel.: 981 54 60 40
Faxa: 981 54 63 37
Harpidetza: Editorial Galaxia

• **Revue internationale des Sciences administratives**

(Hiruhilabetekaria)
Etablissements Emile BRUYLANT
Société anonyme d'éditions juridiques et scientifiques
67, rue de la Régence, 1000 Bruxelles
BBL: 310-0101028-40
Tel.: 02/512.98.45
Harpidetza egiteko telefonoa: 02/512.67.09
Faxa: 02/511.72.02

• **Rivista trimestrale di Scienza Dell'Amministrazione**

Franco Angeli, Editore
Viale Monza 106
20127 Milano
Tel.: 28 27 651
Caselle Postale 17175
20100 Milano

Ebakuntza

Dena erraza izango zen, hala esan zidaten behintzat. Denbora luzean zain egon ondoren, azkenean kendu ahal izango nuen hainbeste traba egiten zidan kistea. Ez itsusi egiten zidalako, baizik eta eskuan nuelako, eta traba egiten zidan lanerako-eta.

Esan bezala, iritsi zen eguna eta joan nintzen ebakuntza txiki hori egitera. Derrigorrezko tramite burokratikoak bete ondoren eraman ninduten ebakuntza gelara. Anestesia ere lokala izango zen eta ez zegoen beldurrik izateko arrazoirik; hala ere, eta badaezpada, erne egon behar. Halako baten hasi zitzaidan erizainetako bat eskua markatu eta ileak kentzen. Harriturik, berehala esan behar izan nion okerreko eskuan ari zela, kistea bestean nuela.

Urduritzen hasia nintzen, baina anestesia jarri eta kirujanoak laster ekin zion lanari. Lanean hasi, eta eskua mugitu nuelako edo ez dakit zergatik, galdetu zidaten ia zerbait nabaritzen nuen. Nik baietz, zerbait nabaritzen nuela. Orduan anestesiko bat eman zidaten, baina oraingoan, irenstekoa. Hala ere, dirudenez, eragina berandu egitekoa edo izan behar ze, ebakuntzak iraun zuen bitartean min edo traba bera nabaritu baitnuen. Gero, ordea, nire logelara eraman eta, anestesia bien eragina batera etorri-edo, lo seko gelditu nintzen.

Esan bezala, teorian ebakuntza erraza zen, eta beraz, operatu eta laster bidali ninduten etxera. Azkenean, etxean! Hiruzpalau egunera dei bat jaso nuen etxean. Neska bat zen. Lagunen bat seguraski.

- Bai?
- X jauna?
- Bai.
- Gogorazten dizut datorren astean ebakuntza bat egiteko txanda hartuta duzula.
- Baina, nola? Orain dela hiruzpalau egun egin didate-eta.
- A, bai? Orduan, barkatu.



Ahots ikustezina

Lehenengo batean Lakuara joatea egokitu zitzaidan. Lakua 2tik sartu nintzen. Artean kanpoan nengoela, eta sarrerara hurbiltzen ari nintzen eran, ilunpetatik ahots batek esan zidan:

- Egun on, txartela mesedez!

Alde guztietara begiratu eta inor ere ikusten ez. Beldurtu egin nintzen. Eta berriro:

- Txartela mesedez!

Halako batean, ahotsa nondik zetorren konturatu nintzen. Eskuinetara kabina moduko bat dago eta barruan, segurtasuneko atezaina. Berak zu ikusten zaitu. Zuk, bera, ordea, ez.

Badakizu, herritarrak ADMINISTRAZIOARENGANDIK hurbil egon behar du, Administrazioak herritarrarengandik, ordea, ez.

Zuen istorioen zain gauzkazue ondorengo helbideetan:

**Administrazioa euskaraz
Eusko Jaurlaritza
Wellingtongo dukearen kalea 2
01010 Vitoria-Gasteiz**



Faxa: 945 -187603

**Posta elektronikoa:
webivap@ivap.es**



Goitibehera

Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondorengo hitzaren anagrama da.

Zer da anagrama bat? Hitz baten letrak beste era batera ordenatu ondoren lorturiko hitza: naiz/zain/zina.



1. Hainbat animaliairen kanpo-estalki gogorra.
2. Pl., lore mota. 3. Erraz sartzen dena.
4. Gorra. 5. Haitzarte. 6. Sasoi.
7. Gipuzkoako ibaia. 8. Zortea. 9. Intsektu-mota. 10. Orrazteko tresna. 11. Txikitutako tabakoz betetako paperezko zilindroa.



1. Hegazti-mota. 2. Gipuzkoako herria.
3. Idazkia. 4. Labore-mota. 5. Buruargi.
6. Jardun. 7. Gaixoa. 8. Ugaztun erbiborua.
9. Albistea. 10. Herria, nazioa. 11. Entzuteko organoa.

LUMA

Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- EIZIE: 943/27 71 11
- EKB: 943/46 66 50
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/27 82 69
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/681 66 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 07-335-59 93 25 25
- Euskaldunon Egunkaria: 943/30 02 22
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/41 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/18 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailordetza: 945/18 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/18 76 56. Fax: 945/18 76 03
- Kultura Saila: 945/18 94 64
- Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusia: 948/10 71 83
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

Galdera-sorta

- ❶ Friulera hizkuntz gutxitua dugu, baina non hitz egiten da?
 - A Holandan
 - B Italian
 - C Errumanian
 - D Polonian
- ❷ Nafarroako armariako kateak zein batailatan hartutakoak dira?
 - A Valdejunqueran
 - B Navas de Tolosan
 - C Calatravan
 - D Ciudad Rodrigon
- ❸ Zein droga ateratzen da kalamauren barietate batetik?
 - A opioa
 - B kokaina
 - C marihuana
 - D heroina
- ❹ Kalashnikov izenak zer dakarkizu gogora?
 - A Errusiako hiri bat
 - B arma bat
 - C Errusiako idazle bat
 - D Bolshoi-ko dantzari bat
- ❺ Non jaio zen Mazzantini toretzaillea?
 - A Tuteran
 - B Linaresen
 - C Palermon
 - D Elgoibarren

Soluzioak

Galdera-sorta
❶/❷/❸/❹/❺

Goitibehera

Udal-Gobernuaren Gidaliburua

Udal-Gobernuaz arduratzen direnentzako oinarriko gidaliburu praktikoa, fitxak erraz eta erabilgarriez osatuta


- A Arauen esparrua
- B Antolamendua eta eskumenak
- C Erregimen juridikoa
- D Politika publikoak
- E Baliabideak
- F Lurralde-ekintza
- G Ekonomiaren garapena
- H Herrigintza



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Gidaliburu hau bakar-bakarrik ondorengo helbide elektronikoan irakur dezakezu:
www.ivap.org/gida.htm



Adminiklopedia

Administrazioan euskaraz lan egiten lagunduko dizun tresna.

- Administrazioko hiztegia
- Gramatikako zalantzak
- Helbide interesgarriak
- Hizkuntza eskakizunak
- Idazki-ereduak
- ...